Baldintzak:

- Promozio bakoitzean zehaztutako aldietarako balio dute eskaintzek.
- Alokairuaren zenbatekoari soilik aplika dakizkiokeen deskontuak (ez da sartzen estrarik).
- Ibilgailuen erabilgarritasunaren araberakoa.
- Deskontuak ezin dira pilatu.

## ***28. Isunen zigorra***

Alokairu-aldian jarritako isunak edo trafikoko arau-hausteengatiko edo lege-urratzeengatiko zenbatekoak ibilgailuaren gidarien ardura dira.

Trafikoko arau-haustea edo lege-urratzea alokairu-kontratuaren oinarritzko ez-betetze bat da, eta horregatik 40 €-ko zigor bat ezartzen da Espainia, Portugal eta Grezian. Isunen zigorra kontratuaren eta azken prezioaren funtsezko baldintza da.

Arau-haustea administrazio-agintarien ebazpen zigortzailean jakinarazpenarekin egiaztatzen da. Eskubidea izango duzu isunen zigorraren dirua itzultzeko, isuna bertan behera uzten duen ebazpen administratibo edo judizial bat ematen bada.

Motorrezko ibilgailuak erabili eta gidatzeagatik sortutako arrisku eta ondorio material eta legal anitzak objektiboki ordaintzeko beharreak justifikatzen da eta, bereziki, ibilgailuaren erabilera zuzenean bezeroek funtsezko mantentze- eta arduraren betebeharrak ez betetzean. Ibilgailuak balio handiko ondasunak direnez eta gidariak araudia ez-betetzeak kalte ekonomikoak edo ardurak sor ditzakeenez ibilgailuaren titularrarentzat, zigor-zenbatekoa horien balioa eta arriskuen zenbatekoa aintzat hartuta ezartzen da.

## **29. HARPIDETZA-AUTOEN BALDINTZA PARTIKULARRAK**

### ***Harpidetza***

Harpidetza-zerbitzuak hilabete osoko aldiak eskaintzen ditu, hileko lehen egunean hasi eta azken egunean amaitzen direnak.

### ***Bermatutako ibilgailu taldea***

Centauro Rent a Car-en erreserba bat egitean, eskatutako ibilgailu taldea bermatzen dizugu, ez erakutsitako marka edo modeloa. Eskatutako ibilgailu taldea libre ez badago, Centauro Rent a Car-ek ibilgailu talde hobeago bat emango dizu prezio beraren truke.

### ***Ordainketa modua***

Harpidetza lehen ordainketa lehen hilabete osoaren lehen egunean egingo da. Eta automatikoki berrituko da abian den hilabetea amaitu baino hamar egun lehenago.

Harpidetza lehen ordainketak kreditu- edo zordunketa-txartelaren bidez egin behar dira.

### ***Baliogabetzea***

Harpidetza noiznahi baliogabetu daiteke, abian den hilabetea amaitu baino hamaika egun lehenagora arte, Centauro Rent a Car-en webguneko “Nire kontua” atalean. Ibilgailua hilabetea amaitu baino lehen itzuliz gero, ez da geratzen den denborari dagokion dirua itzuliko.

Ibilgailua lehen hiru hilabete jarraian erabili baino lehen itzultzen bada, 99 € ordaindu beharko dira.

### ***Itzultzea***

Ibilgailua Centauro Rent a Car edozein bulegotan itzul dezakezu (bilketa herrialdearen barruan eta penintsulan jasotzen denean), Madrilgo Recoletos eta Espainia Plazan eta Westfield Glories-en dauden bulegoetan izan ezik. Bartzelona.

Jasotzeko bulegoa uharte batean daukaten alokairuetan, uharte berean dagoen bulego batean itzuli behar da ibilgailua.

### ***Ibilgailuaren azterketa***

Harpidetza hiru hilabetez jarraian indarrean dagoen bakoitzean, ibilgailua azter dezaten eraman beharko da jasotzeko bulegora. Azterketa egitera eramaten ez bada, harpidetza automatikoki utz daiteke bertan behera.

### ***Kilometrajea***

Hilean gehienez 3.000 kilometro egin daitezke. Kopuru hori gaindituz gero, 0,20 € kobratuko da gehiago egiten den kilometro bakoitzeko.

### ***Herrialdetik kanpo***

Ibilgailua Espainiako penintsula guztian erabil daiteke. Gure ibilgailuak ezin dira ferryan eraman irla edo herrialde batera/batetik bestera/batetik.

### ***Baldintzak***

Centauro Rent a Car-ek harpidetza-autoen baldintzak eta/edo tarifak aldatzeko eskubidea gordetzen du, gutxienez 30 egun lehenago jakinarazita.

Baldintza eta/edo tarifa berriekin ados ez bazaude, harpidetza kosturik gabe baliogabetu dezakezu.

Harpidetza-autoen baldintza partikular hauetan adierazten ez den guztia Centauro Rent a Car-en baldintza komertzialak eta baldintza orokorrak aplikatuko dira modu osagarrian.

## ***30. ASTE BUKAERA KO BONUEN BALDINTZA PARTIKULARRAK***

### ***Bonuak***

Bonuak asteburuetan erabili ahal izango dira, ibilgailua ostiraleko 15:00etan hartu eta asteleheneko 10:00etan itzulita. Ezin izango da bonuaren guztizko egunak pilatu puntu honetan adierazitako baino iraupen luzeagoko erreserba bat egiteko. Egund osagarriren bat behar

izanez gero, une horretan webgunean indarrean dagoen prezioa aplikatuko da erreserba egitean.

### ***Iraungitzea***

Bonuak 12 hilabeterako balioko du, erosten den unetik hasita.

### ***Baliogabetzea***

Bonuak erosi eta gero, ez da horien dirurik itzuliko. Ordaintzeko modu gisa bonua duen erreserba bat eginez gero, eta ondoren erreserba hori bertan behera utziz gero, erabili gabeko egunak mantendu egingo dira, eta bonua indarrean dagoen aldietan erabili ahal izango dira.

### ***Baldintzak***

Bonuen baldintza partikular hauetan adierazten ez den guztia Centauro Rent a Car-en baldintza komertzialak eta baldintza orokorrak aplikatuko dira modu osagarrian.

Centauro Rent a Car-en helmuga hauetan aplika daiteke: [\(kontsultatu bulego-zerrenda\)](#)

# **GIDARIRIK GABEKO IBILGAILUEN ALOKAIRU-KONTRATUAREN BALDINTZA OROKORRAK ESPAINIAN**

## **1. ALDEAK ETA BALDINTZA OROKORRAK**

CENTAURO-k alokatzaile gisa, BEZEROARI (kontratu honen xedeetarako, BEZEROA izango da gidari nagusia eta, solidarioki, ordaintzailea ere), maizter bihurtzen dena, kontratu honen helburu den ibilgailua (edo beharrezko balitz, haren ordeiz emango litzatekeena) alokatzen dio centauro.net helbidean, dokumentu honetan eta/edo hari erantsitako edozein eranskinetan eskura daitezkeen CENTAUROren Baldintza komertzialetan xedatzen diren zehaztapen, baldintza eta tarifen arabera; eta BEZEROAK berariaz adierazten du kontratu hau osatzen duten baldintzak betetzeko konpromisoa hartzen duela, eta irakurri eta onartu dituela baldintza horiek, eta ez duela haiei buruzko zalantzarik edo desadostasunik.

Berariaz ohartarazten zaio BEZEROARI balitekeela CENTAUROk eskainitako zerbitzuak ezin ematea eskatzaileak CENTAUROrekin aurrez hitzartutako kontratuetako zehaztapenak eta baldintzak bete ez dituela behar den moduan justifikatzen denean, bai emandako zerbitzuak ordaindu ez dituelako, bai kontratatutako zerbitzuak bidegabe luzatu dituelako CENTAUROri aldezturik jakinarazi gabe edo haren onespenez gabe, eta hori guztia aplikatu daitekeen kontsumitzaileen eta erabiltzaileen inguruan indarrean den araudian berariaz aurreikusten denari jarraikiz.

Motorrezko ibilgailuak gidatzetik eratorritako arriskuak objektiboki gutxitzeko xedez, ezin izango dira gehitu gidari gisa alokatutako ibilgailuari buruz egindako kontratuan, honako pertsona hauek:

1.- Hemeretzi (19) urte baino gutxiago dituztenak.

Alabaina, eta indarrean diren eta enpresa honek argitaratutako tarifen arabera, BEZEROARI berariaz ohartarazten zaio kontratua izenpetzeko unean 19-24 urte bitarteko adina duten gidariak “*young driver*” izeneko kargu estra bat ordaindu beharko dutela, eta 75 urte edo gehiago dituzten gidariak “*senior driver*” izeneko kargu estra bat ordaindu beharko dutela.

- 2.- Indarrean duten gidabaimenak urtebete (1) baino gutxiago badu, indarrean ez badago, edo ibilgailua entregatzen den herrialdea homologatu gabe badago (BEZEROA izango da gidabaimena indarrean eta homologatuta dagoen egiaztatze arduradun zuzena; Centauro Rent a Car edozein kontzeptutatik salbuetsita geratuko da.
- 3.- Gidari nagusi izanik gidabaimenaren jatorrizko dokumentua erakusten ez badute dokumentu hau sinatzeko unean, gure webguneko digitalizazio-plataformaren bidez aldeztu aurretik Centauro IDa lortu duten kasuetan izan ezik.
- 4.- Karga legalak eta/edo penalak dituen gidabaimen bat badute.
- 5.- Kontratatzeko unean ageriko ezintasun fisiko edo buruko ezintasun bat erakusten dutenek, gidatzeko egokiak diren baldintzak betetzen ez dituztela pentsaraztera eramaten dutenak.

BEZEROAK berariaz aitortzen du ez diola ibilgailua hitzartutako kontratuan ageri ez den beste pertsona bati gidatzen utziko, eta egoera horretan ibilgailuan edo hirugarren bati eragindako edozein kalteren arduradun egiten dela.

#### Espainia:

Era berean eta itsasontzi-gurutzaletan edo kasu horietan erabili beharko litzatekeen beste bitarteko batek eragin ditzakeen balizko arriskuak ekiditeko, BEZEROAK berariaz adierazten du ez dela ibilgailuarekin Ceuta eta Melilla hiri autonomikotara eta Kanarietara joango, ezta penintsulatik Balearretara ere, ezta Balearretan ibilgailua eman zaion tokitik beste uharte batera ere.

Gainera, BEZEROAK ezingo du alokatutako ibilgailuarekin herrialde nazionaletik kanpo atera, alokairua kontratatze unean, CENTAUROren bulegoan hori egiteko asmoa duela adierazi duenean izan ezik. Kasu horretan, Andorrara, Frantziara edo Portugalera joateko gaitasuna emango dion errepideko laguntza kontratatu beharko du. Lurralde horietara soilik joan ahal izango da aipatu egoeran.

Kontratu honetako alderdi bakoitzak onartutako betebeharrak betetzen ez badira, beste alderdiak bete dezala eskatzeko edo kontratua amaitutzat jotzeko gaitasuna emango dio, baita ibilgailua

berreskuratzeko beharrezko neurriak hartzeko ere (maizterrak betetzen ez badu), edo ordaindutako zenbatekoak itzultzeko (alokatzaileak betetzen ez badu), eta hori guztia arauak ez betetzearen ondorioz sortu litezkeen kalteak erreklamatzeko aukerari kalterik egin gabe.

Gidaririk gabeko ibilgailu honen alokairu-kontratua BEZEROAK ibilgailua modu pribatuan erabiltzeko eskuragarri izan dezan egiten da, eta bere egiten ditu ibilgailua oker erabiliz gero sor litezkeen erantzukizun zibil, administratibo edota penalak, edota sortutako edozein arau-hauste administratibo edo penalen komisioa.

BEZEROAK egindako edozein jardueraren ondorioz CENTAUROk aurre egin beharreko erantzukizun zibilaren komisioak, edo arau-hauste administratibo edo penalak eragindako komisioak, kalte-ordainen edo zigorren zenbatekoa erreklamatzera ez ezik, alokairu-kontratu honen xede den ibilgailua ezin erabiltzearen ondorioz sortutako kalteen zenbatekoa ere eskatzeko eskumena emango dio.

Aurrekoari kalterik egin gabe, berariaz adierazten zaio BEZEROARI CENTAUROrentzat zein ondorio ekar ditzakeen Illes Balears-eko lurreko garraiobideei eta mugikortasun jasangarriari buruzko ekainaren 20ko 4/2014 Legea aplikatzeak, eta beraz, BEZEROAK berariaz adierazten du ez duela erabiliko eta ez duela alokatutako ibilgailua bidaiarien garraiobide pribatu. Estatuko segurtasun-indarrek, edo halako gaitasuna duen beste agintari batzuek, alokairu-kontratu honen xede den ibilgailua adierazi den erabilera horrengatik salatzen badute, CENTAUROk eskubidea izango du BEZEROAREN aurrean arlo juridikzional guzietan dagozkion ekintzak gauzatzeko eta, bereziki, dagozkion prozesu penalak ekitea balizko iruzur-d Centauro-n urtero gure ibilgailuak berritzen ditugu eta azken modeloak eta fidagarritasun handiena eskaintzen ditugu. Hori dela eta, Centaurok ibilgailuak denbora/kilometraje jakin batean bakarrik mantentzen ditu bere flotan.

Parametro hauek ez betetzeak Centauro-ri kalteak eragin diezazkioke. Hori dela eta, Centaurok eskubidea du, kontratuaren iraupenean, Bezeroari entregatu zaion ibilgailua aldatzeko, baldin eta

ibilgailua Centauroren flotan denbora-tarte jakin batean egon bada edo dagoeneko kilometro jakin batera iritsi bada.

Denbora tarte edo kilometraje horren arabera, beharrezkoa izan daiteke, kontratua irauten duen bitartean, bezero bati entregatutako ibilgailua beste ibilgailu baliokide batengatik aldatzea, hau da, kontratuan hitzartutako kategoriakoa. Bezeroari berehala jakinaraziko zaio ibilgailua aldatzeko beharraz eta behartuta dago ibilgailua itzultzea, ezarritako Centauroren bulegoan zehaztutako egunean eta orduan, baita ibilgailua aldatzeko beharrezkoak diren beste neurriak betetzera ere. . . Inguruabar hori ez da kontratu-harremanaren amaieratzat hartzen.

Bezeroak ibilgailua itzultzen ez badu edo zehaztutako orduan eta egunean itzultzen ez badu, atzerapen egun bakoitzeko zigor bat ordaindu beharko du “6. Erreserba Baldintzak” Merkataritza Baldintzak. Era berean, Centaurok eskubidea du sor daitezkeen kalteengatik kalte-ordain gehigarria eskatzeko.elituengatik.

## **2. ALOKATZAILEAK IBILGAILUA ERABILTZEA**

CENTAUROK berariaz adierazten du entregatutako ibilgailuak gainditu dituela egin zaizkion barneko kontrol eta azterketa mekanikoak, eta BEZEROAK xede horretarako izenpetu duen orrian agertzen den egoera orokorrean dagoela, beharrezko dokumentazioa, tresnak eta osagarri egokiak dituela, eta pneumatiko guztiak (ordezkoa edo konpontzeko kita barne) egoera onean eta zulatu gabe daudela.

BEZEROAK berariaz konpromiso hauek hartzen ditu:

- Ibilgailua egoera onean mantentzea eta balizko arriskuetatik aldentzea.
- Lurralde bakoitzari aplikatzen zaizkion Zirkulazio-kodearen arauak errespetatzea, dagokion ibilgailu mota erabiltzeko dauden zehaztapenen arabera. Eta bereziki, alderdiek adosten dute Zirkulazio-kodea edo legeak urratzea dakarren edo trafikoaren segurtasunaren aurkako delitu bat egiteak ondorioztaututako edozein arau-hauste kontratu honetan hartutako betebeharrak funtsean bete ez direla ulertuko dela, eta ondorioz, kontratua amaitu egingo da eta/edo dagozkion

kalte-ordainak eskatuko dira eragindako kalteengatik (gainera, dagozkion zigorrak ere eskatuko dira kontratua ez betetzeagatik), jokabide horien ondorioz CENTAUROri eragindako gastuak eta zerbitzu-sariak barne.

- Palma Mallorcako bulegoan entregatzen den ibilgailuaren edo Calviá udalerrian gidatu behar duten alokatzaileek, eta Zirkulazioko udal ordenantzetan berariaz zehaztutakoa betetzeko, xede horretarako egokitutako tokian CENTAUROk emandako izenpetutako kontratua erakutsi beharko dute. Betebehar hori berariaz gehitzen duten gainerako udalerrietan ere beste horrenbeste egin beharko da.
- Ezin zaio ibilgailua beste edonori alokatu, pertsonak edo Legea edo indarrean diren lege-xedapenak urratzen dituen pertsonak salgaiak garraiatu, ezta bere kopuruak (pisua, kopurua eta/edo bolumena) ibilgailuaren fabrikatzaileek edo legeek zehaztutako mugak gainditzen badituzte.
- Ezin da gidatu edari alkoholikoen, drogen edo beste substantzia estupefaziante batzuen mende, ezta nekearen edo gaixotasunen ondorioz gaitasunak gutxituta edo gidatzea aholkatzen ez den beste egoera batean.
- Ezin da erabili ibilgailua beste ibilgailu, atoi edo objektu biratzaile (edo ez) batzuk bultzatzeko edo atoia eramateko.
- Ezin da parte hartu kirol lehiaketa edo lasterketetan, ofizialak izan ez edo ez.
- Ezin da materialen, osagarrien edo eman ez diren eta CENTAUROk baimendu gabeko automobileko produktuak erresistentzia-probak egiteko erabili.
- Ezin da garraiatu garraiatzea debekatuta dagoen edo administrazioaren baimena behar den objekturik edo merkantziarik, ezta merkantzia sukoirik, arriskutsurik, erradioaktiborik, toxikorik edo kaltegarriarik.
- Ezin da ibilgailuaren edozein zati (dokumentuak, giltzak eta osagarriak barne) edo ibilgailua bera berme gisa eman, pignoratu, saldu, alokatu, laga, hipotekatu, eman edota aldatu.
- Itxi ibilgailua behar den moduan, aparkatu onartutako toki egoki eta seguru batean erabiltzen ez denean, eta barruan dagoen dokumentazioa bertan gorde eta mantendu.

- Gelditu berehala ibilgailua akats tekniko bat dagoela pentsatzera ematen duen kanpoko zantzu edo zantzu esplizitu txikiena agertzen denean (adierazleak). Kasu horietan, BEZEROA ahalik eta lasterren jarri beharko da harremanetan gertuen duen CENTAUROren bulegoarekin edo CENTAUROk izendatutako Laguntza-konpainiarekin, eta ez zaizkio beste enpresa bat erabiltzeagatik sortutako zorrak ordainduko, erabateko larrialdiko kasuetan izan ezik.
- Ezin da gidatu alokatutako ibilgailua gidatzeko egokiak ez diren pasatu ezin daitekeen edo asfalterik gabeko errepideetatik, karrozeriaren behealdean kalteak sor daitezkeelako baita beste kalte mota batzuk ere.
- Jarraitu berariazko argibideei eta ordaindu dagozkien ordain-sariak ordainpeko errepideetan.

### **3. IBILGAILUA ITZULTZEA**

Ibilgailua entregatutako egoera berean itzuliko da eta dokumentu, osagarri eta ekipo berekin, kontratatutako alokairu-aldia amaitzeko hitzartutako tokian, datan eta orduan. BEZEROAK berariaz bere egiten ditu CENTAUROk berariaz baimendutako alokairu-ibilgailuan egindako aldatetarako eragindako ondorio juridikoak. Ibilgailua alokairu-kontratuan ezarritako datatik eta ordutik kanpo itzuliz gero Centauro Rent a Car-i, ibilgailua erabili den aldi osagarria gehi eguneko 50 €-ko zigorra kobratzeko eskubidea izango du.

Inola ere ez da alokairu-kontratua isilbidez luzatutzat emango BEZEROAK alokairu-kontratua amaitzeko hitzartutako data iristean ibilgailua itzultzen ez badu, eta kasu horretan beharrezkoa izango da CENTAUROren berariazko eta idatzizko baimen bat luzapen hori egiteko (eta BEZEROAK beste erreserba bat egin beharko du libre dauden ibilgailuen arabera eta dagokion tarifaren zenbatekoa ordainduta). BEZEROA izango da ibilgailuari eragindako edozein kalteren arduradun alokairua amaitu eta ibilgailua itzuli arte. Edonola ere, CENTAUROk kalte-ordaina eska dezake sortutako kalteengatik.

Gainera, CENTAUROk dagozkion ekintza judizialak has ditzake alderdien artean berariaz hitzartu dena bete dadin eskatzeko, eta dagokion ekintza penala ere dei dezake balizko bidegabeko jabetza-

delitua aldarrikatuz eta estatutako segurtasun-indarrei ibilgailua gelditu eta mugiezin uzteko.

#### **4. ALOKAIRUAREN KARGUAK**

Alokairu-kontratu hau betetzeko, BEZEROAk ordainketa hauek egin beharko ditu:

- Ibilgailua alokatzeagatik sortutako karguak eta zergak, eta dokumentuak, osagarriak eta/edo tresnak galdu direlako horiek ordezteko balioaren karguak.
- Beharrezkoa bada, ibilgailua itzuli denean, oso zikina itzultzen bada, eta zikinkeria hori ibilgailuaren erabilera normalarekin bat ez badator, garbiketaren zordunketa osagarri bat kobratuko da, gehienez ere 100 €-koa, emandako zerbitzuaren zenbatekoa aldezturik justifikatu eta gero.
- BEZEROAK kontratuan hitzartutako baldintzak aldatzen baditu, alokairua amaitutakoan ibilgailua hasieran aukeratutako tokia ez den beste toki batean entregatzea eskatzen duelako, edo hasieran gidari gehigarri gisa sartu ez den pertsona batek ibilgailua gidatzea baimentzen duelako, egoera bakoitzean indarrean diren tarifak ordaindu beharko ditu.
- Ibilgailuaren alokairu-kontratua likidatu eta gero, BEZEROAren aldeko zenbateko bat geratzen bada, CENTAUROk berehala itzuliko dio zenbateko hori hasierako ordainketa egin zen modu berean, eta ez du banku- edo kreditu-erakundeek egin beharreko kudeaketen ondorioz gerta litezkeen atzerapenen erantzukizunik bere egingo.
- BEZEROAK laguntzaren bat eskatuko balu, **garabiaren gastuak ordaindu beharko ditu, baita laguntza horrek eragindako beste edozein gastu ere**, ibilgailuaren akats tekniko baten ondorioz sortutako laguntza bat denean eta CENTAUROk xede horretarako izendatu dituen laguntza-enpresen bidez egin denean izan ezik.
- Kilometraje osagarriengatik karguak, Baldintza komertzialetan zehaztutako prezioen eta egoeren arabera.
- Kontratua indarrean den bitartean, BEZEROAK izandako bidesariak, isunak, aparkatze-gastuak, zigorrak eta aplikagarria den araudiaren arabera izandako lege-gastuak (auto-pilaketen edo

trafiko-murrizketak sortutako gastuak, nahiz eta gastu horiek hasiera batean CENTAUROK ordaindu; baita alokairuko garaian alokatutako ibilgailuarekin lotutako beste edozein lege-gastu ere

## **5. BALIZKO KARGU GEHIGARRIAK.**

Kontratu honetan BEZEROAK bere egindako betebeharrak betetzen ez dituelako, kontratuaren baldintza komertzialetan eta/edo baldintza orokorretan zehaztutako eta/edo horietatik eratorritako zenbatekoren bat ordaindu behar badu, BEZEROAK berariaz baimena ematen dio CENTAUROri kargu horiek xede horretarako eman den kreditu-txartelean egiteko, aldez aurretik zergatik egiten den jakinarazi eta zenbatekoa justifikatuta.

Bereziki, BEZEROAK kontratu honetan islatutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz sortutako kalteen karguak onartzeko betebeharra duela adierazten du, kontzeptu hauengatik sortzen badira:

- Ibilgailuari eragindako edozein kalterengatiko/galerarengatiko kalte-ordaina, BEZEROAK estaldura justifikatu eta/edo kontratatu ez badu, baita ibilgailua mugitu ezinik uzteak sortutako gastuak (errepideko laguntzak, garabiak, ibilgailu-gordailuak eta abar sortutako gastu justifikatuak)
- CENTAUROK isun moduan ordaindutakoaren baliokidea den kalte-ordaina, zirkulazio-hauste edo lege-hauste bakoitzeko gidari gisa baimendutako edozein pertsonak, errentariak berandutzeagatiko zigorrak barne.
- BEZEROaren zabarkeriak eragindako kalteen zenbatekoari dagokion kalte-ordain baliokidea, zeinetan berariaz sartzen diren giltzak galtzea, okerreko erregaia botatzea eta alokatutako ibilgailuan barne-elementuak falta izatea.
- CENTAUROK ordaindutako zenbatekoaren pareko kalte-ordaina BEZEROAREN bidesari-kontsumoagatik, baita horietatik eratorritako beste edozein zenbateko ere (errekarguak eta abar). Gainera, BEZEROAK 40 €-ko kargu bat ordaindu beharko du kontratu bakoitzeko kudeaketa-gastuengatik dira Espainian, Portugalen eta Grezian.

## **6. IBILGAILUA ERABILTZETIK ERATORRITAKO KALTEEN ERREGIMENA**

### **6.1 HIRUGARRENEI eragindako kalteak**

Indarrean den araudiari jarraikiz, CENTAUROk une oro aseguru bat kontratatuta eta indarrean dauka lehen mailako konpainiekin, alokatutako ibilgailuaren gidariak edo gidariak, ibilgailua gidatzean, hirugarrenei sortutako kalte pertsonalen eta materialen erantzukizun zibila estaltzeko.

CENTAURO ibilgailuen flotaren aseguru konpainia hauetako batekin kontratatuko da: Generali, Mutua Madrileña, Groupama Mapfre, Reale, Zurich, Helvetia eta Axa, eta bere estaldura geografikoa estatu osora zabalduko da.

Aseguru honen esparruan, aseguraturata geratzen dira ere, muga batzuetara arte, baimendutako gidariak berak jasandako kalte pertsonalak (heriotza, erabateko ezintasuna eta ezintasun partziala eta osasun-arretaren gastuak) (Espainian, Portugalen eta Grezian soilik balio du).

Kontratu hau sinatuz gero, baimendutako gidariak aseguru honen aseguratu bihurtzen dira.

Aseguruak estalitako erantzukizun zibilaren mugak, gutxienez, indarrean une oro derrigorrez aurreikusten direnak dira.

Kaltetutako hirugarrenen mesederako eskubideei kalterik egin gabe, BEZEROARI jakinarazten zaio aseguru honek CENTAUROk erreklama dezakeen berme oro estaltzen dituen frankizia bat duela, eta zenbateko horiek Baldintza komertzialetan adierazten direla.

Era berean, BEZEROARI jakinarazten zaio aseguru-estalduran sartzen ez diren egoerek eragindako kalteak erreklama diezazkiokeela aseguratzaileak BEZEROARI.

BEZEROAK baldintza orokorrak edonoiz kontsulta ditzake.

### **6.2 IBILGAILUEI eragindako kalteak**

BEZEROA da berak, baimendutako gidariak eta ibilgailuan doazen gainerakoek ibilgailua egoki kontserbatzeko eta erabiltzeko ardura duena.

BEZEROAK ibilgailuari eragindako kalteengatik CENTAUROren aurrean duen erantzukizuna kontratua gauzatzen den unean zehaztuko da Alokairuaren baldintza komertzialetan adierazitako Kalteen zenbatekoen zerrendaren arabera-.

Aurrekoari eta geroago zehaztuko denari kalterik egin gabe, CENTAUROk bi modalitatetan eskaintzen dio BEZEROARI ibilgailuaren alokairua.

A) Modalitate lehenetsia: kalteengatiko salbuespen mugatua (Collision Damage Waiver edo CDW) + Ibilgailua lapurtzeagatiko salbuespen mugatua (Theft Protection edo TP)

Modalitate honetan, CENTAUROk BEZEROA partzialki salbuetsi egiten du ibilgailuari eragindako kalteen erantzukizunetik.

Egoera horietan BEZEROAK gehienez ere kontratuan berariaz adierazitako zenbatekoa, FRANKIZIA gisa adierazten dena, ordaindu beharko dio CENTAUROri (Baldintza komertzialetan aipatzen den zerrendaren arabera zehaztutakoa).

Edonola ere, erantzukizun-muga hori gauzatzeko, ezinbestekoa izango da kalteen aitortzea eta, hala balegokio, istripuari edo jazoerari buruzko datu guztiak biltzen dituen istripu-parte/poliziaren txostena (ibilgailuaren datuak eta/edo tartean ziren pertsonak, gertatu denaren eta sortutako kalteen deskribapena) aurkeztea.

Era berean, modalitate honetan CENTAUROk partzialki salbuesten du BEZEROA ibilgailua edo haren zati edo osagai batzuk legez kanpo kentzetik sortutako kalteen erantzukizunetik, kontratuan FRANKIZIA gisa berariaz adierazitako zenbatekotik goragokoa denean, zeina BEZEROAK ordaindu beharko duen.

Edonola ere, erantzukizun-muga hau indarrean sartzeko, ezinbestekoa izango da alokatutako ibilgailuaren giltzak emateko unean CENTAUROri gertatutakoaren berri ematea, baita eskumena duten agintarien aurrean aurkeztutako salaketa penalaren kopia bat ematea ere.

Kontratu honen Baldintza komertzialetan zehazten den moduan, ibilgailua modalitate honetan alokatzean, BEZEROAk erantzukizun horiek ordaintzeko berme gisa gordailu bat egin beharko du.

Aurrekoari aurkarik egin gabe, berariaz jakinarazten zaio BEZEROARI erantzukizunaren salbuespen mugatua ez dela iristen egoera hauetako batek sortutako kalteetara, kasu horretan CENTAUROk zenbateko osoa erreklamatu ahal izango du:

- Pneumatikoetan sortutako kalteak, bai pneumatikoei emandako kolpeengatik, bai alokatutako ibilgailuan pisu gehiegi eramateagatik.
- Zilindroetan edo sarrailetan eragindako kalteak, baita alokatutako beiretan eragindakoak ere.
- Gurpilak, ibilgailuaren gainaldeko edo behealdeko elementuak, sabaia, giltzen kopia, zilindroak, eserlekuak eta alokatutako ibilgailuaren beirak lapurtzeagatik eragindako kalteak.
- Ibilgailua osatzen duten zatietan edo elementuetan sortutako kalteak edo faltak, barrualdean, kanpoaldean eta mekanikoak, alokatutako ibilgailua lapurtu edo lapurtzen saiatu delako.

B) Aukerako modalitatea: Kalteengatik erabateko salbuespena (SMART tarifa)

Modalitate honetan, eta gero esango denari kalterik egin gabe, CENTAUROk guztiz salbuesten du BEZEROA ibilgailuari egindako kalteetatik edo “CDW + TP” modalitatean arduradun izango litzatekeen legez kanpo lapurtzearen ondorioz sortutakoetatik, kontratu honen Baldintza komertzialetan zehazten diren ibilgailuaren alokairu gisa zenbateko osagarriak ordainduz gero.

BEZEROAk ezin izango du kontratu modalitate hau alokairuaren kontratua izenpetu eta gero kontratatu.

C) Kontratazio-modalitate horietan inola ere sartzen ez diren kalteak

BEZEROAk aukeratzen duen modalitatea aukeratzen duela, bera izango da erantzule CENTAUROren aurrean egoera hauetako baten ondorioz sortutako kalte eta galera guztien zenbateko osoa ordaindu arte (baita ibilgailua ezin alokatzeagatik galdutako irabazia ere):

trafiko-arauak era larrian urratu ostean sortutako istripuek eragindako kalteak, edo trafiko-segurtasunaren aurkako delitua den jokabide baten ondorioz sortutako istripuenak.

- Alkoholaren edo drogen eraginpean gidatzeak eragindako kalteak.
- BEZEROAK edo baimendutako gidariak modu desegokian edo jokamolde oso zabarrean gidatzean sortutako istripuen ondorioz alokatutako ibilgailuan sortutako kalteak, baldin eta horrelakoen berri eman bada prozedura judizialean.
- Ibilgailua irekitzeko alokatzaileari emandako bigarren giltza parean edo tapizerian eragindako kalteak.
- Meteorologia-fenomenoen ondorioz sortutako kalteak, baita horiek sortutako arreta-gastuak ere (ezinbesteko gertaerak izan ezik)
- Herrialdetik kanpo ibilgailuari egindako kalteak, derrigorrezko errepideko laguntzaren kanpoko estaldura kontratatu ez bada.
- Errepideko laguntza, erregaia izoztuz gero
- Haurren aulkiak kaltetzea/galtzea.
- Giltzak, katua, segurtasun-hirukiak, txalekoak, haizetako-garbigailuak, gasolina-edukiontzia-aren tapa, maletategiko erretiluak edo ibilgailuaren beste edozein osagai finko edo mugikor kaltetzea/galtzea/lapurtzea, ezta su-itzal-gailuak edo mediku-kitak ibilgailuarekin izandako ezbeharretatik kanpo erabiltzea ere.
- Motorreko kalteak zabarkeriagatik.
- Okerreko gasolina botatzeak eragindako kalteak.
- Ibilgailua lapurtzea giltzak jarrita zituela.
- Alokairuko epean trafikoko arau-hausteengatik edo lege-urratzeengatik jarritako isunak ibilgailu-gidariaren ardura dira. Isunen bat jasoz gero, 40 € kobratuko dira Espainian, Portugalen eta Grezian kontratua bete ez izanaren zigor gisa, jakinarazitako zigor bakoitzeko (bezeroak eskubidea izango du isunen zigorraren dirua itzultzeko, isuna bertan behera uzten duen ebazpen administratibo edo judizial bat ematen bada).
- BEZEROAREN bidesari-kontsumoak, baita horietatik eratorritako beste edozein zenbateko ere (errekarguak eta abar). Gainera, BEZEROAK 40 €-ko kargu bat ordaindu beharko du kontratu

bakoitzeko kudeaketa-gastuengatik dira Espainian, Portugalen eta Grezian (arau-haustearen izapide ofizialen bidea kontuan hartu gabe kobratuko da zenbateko hori).

### **6.3 BEZEROAREN ONDASUNEI eragindako kalteak**

Ibilgailuan dauden BEZEROAren jabetzako ondasunak kaltetzea, galtzea edo lapurtzea bere ardura izango da erabat eta bakarrik, eta ez ditu inolako seguruk estaltzen eta aurreko atalean adierazitako modalitatearen bat ere estaltzen. CENTAUROk ez du alokairua amaitu eta gero BEZEROAk ibilgailuan utzitako bere jabetzeko ondasunak zaintzeari edo bidaltzeari buruzko ardurarik bere egiten.

## **7. ISTRIPUAK**

BEZEROAk CENTAUROri berehala edozein ezbehar jakinarazi eta ezbeharrari buruzko behar adina jakinarazpen egiteko konpromisoa hartzen du, baita ahalik eta lankidetzat handiena emateko ere CENTAUROri nahiz Aseguru-konpainiari, edozein erreklamazioaren edo prozesuren ikerketa eta defentsa egiteko.

Edonola ere, istripuaren edo ezbeharraren unean, BEZEROAK:

- Beste alderdiaren datu guztiak eta istripuari buruzko ezaugarri guztiak eskuratuko ditu.
- Istripuaren adierazpen adiskidetsua izenpetu ezin bada, berehala jakinaraziko dio poliziari eta polizia-txostenaren kopia bat lortuko du.

BEZEROAK istripuaren adierazpen adiskidetsua edo polizia-txostena aurkezten ez badu, BEZEROA istripuaren arduradun izan dela pentsatzeko eskubidea gordetzen du CENTAUROk.

BEZEROAk gertaera kaltegarria izan den egoerari buruz egiten dituen aitorpen eta adierazpenetan, ahozkoetan nahiz idatzizkoetan, egia esateko konpromisoa hartuko du. BEZEROAk CENTAUROren eta haren aseguratzaillearen aurrean erantzungo du adierazpen edo aitortza faltsuak, okerrak edo partzialak eginda sor litezkeen kalteengatik. CENTAUROk BEZEROAren aitorpenak edo adierazpenak ez onartzeko eskubidea gordetzen du.

## **8. KONPONKETAK, KOIPEZTATZEAK, OLIOAK ETA ERREGAIAK**

BEZEROAK likidoen mailak egiaztatu beharko ditu 1000 kmz behin, eta behar dena bota beharko du. Likidoak botatzeak eragindako gastuak (zabarkeriak sortutakoak izan ezik) ordaindu egingo dira, zerbitzu hori egin izanaren egiaztagiria aurkeztuta. Kalteetatik eta/edo matxuretatik eratorritako konponketak CENTAUROk berariaz xede horietarako hitzartutako tailerretan egingo dira, eta hark ordainduko ditu kalte edo matxura horietatik sortutako zenbatekoak, kontratu honetan zehaztutako baldintzak betetzen badira ere. Konponketa CENTAUROrekin hitzarmenik ez duten tailerretan egin beharrez gero, aldeztu aurretik onartu beharko da eta BEZEROAK ordaindu duen zenbatekoa itzuliko dio, egindako zerbitzuen eta horien zenbatekoa ageri diren ordainagiria aurkezten duenean.

BEZEROAK erregai egokia bota behar du, eta hark ordaindu beharko du erregai horren zenbatekoa.

CENTAUROk gordailuan entregatutako zenbatekoa itzuliko du entregatzen den alokatutako ibilgailuaren erregaia ordaintzen dela bermatzeko, bezeroak aukeratutako kontratazio-modalitatearen baldintzetan horrela xedatzen denean berariaz.

Kontsumitutako erregaiaren prezioa merkatuko erregaiaren batez besteko prezioaren arabera kalkulatu da. Informazio gehiago lortzeko, kontsultatu Baldintza komertzialak [centauro.net](http://centauro.net) helbidean.

## **9. JURISDIKZIOA ETA LEGE APLIKAGARRIA**

Kontratu hau Espainiako legeek arautzen dute eta, BEZEROA kontsumitzaile edo erabiltzaile jotzeko, harekin izandako edozein gatazka, gatazka hori konpontzeko akordio adiskidetsu bat lortu ezin bada, obligazioa bete behar den tokiari dagokion jurisdikzioaren mende egongo da, eta toki hori alokairua hasi zen tokia izango da, eta hori guztia kontsumitzaileen eta erabiltzaileen arloan indarrean den araudian ezartzen denari jarraikiz.

Zerbitzuaren kontratatzaileak kontsumitzaile edo erabiltzaile izaera merezi ez duen kasuetan, alderdiek adosten dute CENTAUROren sozietate-helbidea dagoen udalerriko jurisdikzioaren mende daudela.

BEZEROari jakinarazten zaio eskura duela webgune honetan CENTAUROren Bezeroaren arreta- eta erreklamazio-zerbitzua, baita kontsumo-auzien ebazpen alternatiboko erakundeei buruzko informazioa ere: <https://www.centauro.net/ayuda-sobre-el-alquiler-del-coche/formulario-contacto/>

Aurrekoari kalterik egin gabe, eta lurreko garraiobideen antolaketari buruzko uztailaren 30eko 16/1987ko Espainiako Legearen 38. artikulua dioenari berariaz jarraikiz, CENTAUROk berariaz adierazten du ez duela nahi ibilgailuen alokairu-zerbitzuak kontratatzearen ondorioz sortutako edozein gatazka Garraioaren arbitraje-batzordeak ebazterik.

## ***10. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.***

**Tratamenduaren arduraduna** CENTAURO RENT A CAR, S.L.U ("CENTAURO"). Helbidea: Avda País Valencia 9 Bloque A, Local 4, 03509 Finestrat, Alacant. Helbide elektronikoa: [dpo@centauro.net](mailto:dpo@centauro.net) Harremanetarako: (+34) 966 360 360. **I. Tratamenduen helburu nagusiak:** Kontratu-harremana exekutatzearekin lotuta: BEZERO gisa erregistratzeko eskaera tramitatzea, harreman komertziala eta dituzun beharrak kudeatzeko. Batzen gaituen kontratuzko edo aurrekontratuzko harremana kudeatzea, mantentzea eta betetzen dela ziurtatzea. Lege-betebeharrei dagokienez: Edozein lege-araudi edo lege-arau betetzeko, zure datuak agintari publikoei, arau-emailei edo gobernuko beste organo batzuei jakinaraz diezaiekegu. Ibilgailuaren geolokalizazioa, agintariak hori egiteko eskatuz gero. CENTAUROren interes legitimoan oinarrituta: CENTAUROren ekintza komertzialak, edozein bitartekoren bidez, kontratatu dituzun produktuen eta/edo zerbitzuen antzekoak eskatzeko. Gogobetetze-inkestak eta zure beharren analisiak egitea, gure eskaintza zure beharretara egokitzeko. Zure ahotsa eta/edo irudia grabatzea, gure zerbitzuan kalitatea mantentzeko, eta beharrezkoa balitz, erreklamazioak eta beste prozedura batzuk kudeatzeko. Zure datuak aseguratzaileri jakinaraztea errepideko lagutnza emateko ezbeharretan edo trafikoko gorabeheretan. Zure datuak Centauro eta bere taldeko enpresei (Grupo Mutua Madrileña) jakinaraztea, bereziki hauei: MUTUA MADRILEÑA AUTOMOVILISTA, S.S.P.F.;

AUTOCLUB MUTUA MADRILEÑA, S.L.U.; MUTUAMAD MOBILITY, S.L.U.; SILDOSCAN SPAIN, S.L.; CENTAURO RENT A CAR, S.L.U.; NORDIC BUS, S.L.U.; CENTAURO RENT A CAR ITALY, S.r.L.; CENTAURO RENT A CAR, L.D.A.; NORDICWHEELS, L.D.A.; CENTAURO RENT A CAR GREECE, SINGLE MEMBER S.A eta beste batzuei, bezeroak eskatutako gidaririk gabeko ibilgailuaren alokairu-zerbitzuak in situ eskaintzeko xedez, baita prozesu administratiboak eta informatikoak zentralizatzeko ere. Centauro-ren instalazioetan ibilgailua geolokalizatzeko, baita lapurtu edo bidegabe eskuratuz gero ere. Emandako onespeneren arabera: zure beharrak aztertzeko gure iturriak edo kanpokoak aintzat hartuta, baita gure publizitate-bazkideak ere, publizitate interesgarria eta segmentatua erakusteko zure hobespenak kontuan hartuta. Zure nortasuna eta dokumentazioa egiaztatzea aurpegi bidezko ezagutzaren bidez. Ibilgailua geolokalizatzeko erabiltzaileak eskatutako laguntza emateko. Gidatze-datuak ateratzeko, ondoren aztertzeko. **II. Datuen hartzaileak:** agintari publikoak, arautzaileak edo gobernuko edo jurisdikzioko beste batzuk. Konpainia aseguratzaileak errepideko laguntza emateko trafikoko gorabehera edo ezbeharretan, Centauro taldeko sozietateak zerbitzuak ongi emateko, edota Centauro-rekin lankidetzan aritzen diren hirugarren enpresak. **III. Datuak babesteko eskubideak:** datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezabatze, mugatzeko edota tratatzeari uko egiteko eskubideak gauza ditzakezu, baita datuak eramateko eta erabaki automatizatuak egiteko erabiltzeari uko egiteko eskubideak ere, “Informazio osagarria” atalean zehazten den moduan. **IV. Informazio osagarria:** Bezeroen Pribatutasun-politikaren informazio osagarri xehatua ezagutu nahi izanez gero, joan gure web-orrira: <https://www.centauro.net>. Adierazi dugun moduan, Centauro-k eskaintzen dituen produktuen eta zerbitzuen eskaintzarik onenen eta zure interesetara hoberen egokitzen direnen berri emateko, zure onespenera behar dugu: Onartzen dut Centauro-k nire kontsumo-ohituren profil bat egitea barneko eta kanpoko informazioa erabiliz, baita nire datuak bere publizitate-bazkideei ematea ere, nire beharretara egokitzen diren produktuei edo zerbitzuei buruzko eskaintza bereziak eskaintzeko xedearekin. □ Bai

## **GIDARIRIK GABEKO IBILGAILUEN ALOKAIRU-KONTRATUAREN BALDINTZA OROKORRAK PORTUGALEN**

### **1. ALDEAK ETA BALDINTZA OROKORRAK**

CENTAURO-k alokatzaile gisa, BEZEROARI (kontratu honen xedeetarako, BEZEROA izango da gidari nagusia eta, solidarioki, ordaintzailea ere), maizter bihurtzen dena, kontratu honen helburu den ibilgailua (edo beharrezko balitz, haren ordeiz emango litzatekeena) alokatzen dio centauro.net helbidean, dokumentu honetan eta/edo hari erantsitako edozein eranskinetan eskura daitezkeen CENTAUROren Baldintza komertzialetan xedatzen diren zehaztapen, baldintza eta tarifen arabera; eta BEZEROAK berariaz adierazten du kontratu hau osatzen duten baldintzak betetzeko konpromisoa hartzen duela, eta irakurri eta onartu dituela baldintza horiek, eta ez duela haiei buruzko zalantzarik edo desadostasunik.

Berariaz ohartarazten zaio BEZEROARI balitekeela CENTAUROk eskainitako zerbitzuak ezin ematea eskatzaileak CENTAUROrekin aurrez hitzartutako kontratuetan zehaztapenak eta baldintzak bete ez dituela behar den moduan justifikatuta, bai emandako zerbitzuak ordaindu ez dituelako, bai kontratatutako zerbitzuak bidegabe luzatu dituelako CENTAUROri aldeztu aurretik jakinarazi gabe edo haren onepenik gabe, eta hori guztia aplikatu daitekeen kontsumitzaileen eta erabiltzaileen inguruan indarrean den araudian berariaz aurreikusten denari jarraikiz.

Motorrezko ibilgailuak gidatzetik eratorritako arriskuak objektiboki gutxitzeko xedez, ezin izango dira gehitu gidari gisa alokatutako ibilgailuari buruz egindako kontratuan, honako pertsona hauek:

1) Hemeretzi (19) urte baino gutxiago dituztenak.

Aurrez esandakoari kontrarik egin gabe, eta indarrean diren eta enpresa honek argitaratutako tarifen arabera, BEZEROARI berariaz ohartarazten zaio kontratua izenpetzeko unean 19-24 urte bitarteko adina duten gidariek “young driver” izeneko kargu estra bat ordaindu beharko dute, eta 75 urte edo gehiago dituzten gidariek “senior driver” izeneko kargu estra bat ordaindu beharko dute.

- 2) Indarrean duten gidabaimenak urtebete (1) baino gutxiago badu, indarrean ez badago, edo ibilgailua entregatzen den herrialdea homologatu gabe badago (BEZEROA izango da gidabaimena indarrean eta homologatuta dagoen egiaztatze arduradun zuzena; Centauro Rent a Car edozein kontzeptutatik salbuetsita geratuko da.
- 3) Gidari nagusi izanik gidabaimenaren jatorrizko dokumentua erakusten ez badute dokumentu hau sinatzeko unean, gure webguneko digitalizazio-plataformaren bidez aldeztu aurretik Centauro IDa lortu duten kasuetan izan ezik.
- 4.) Arazoren bat duten gidabaimen bat badute; adibidez, karga legalak eta/edo penalak.
- 5) Kontratatzeko unean ageriko ezintasun fisiko edo buruko ezintasun bat erakusten dutenek, gidatzeko egokiak diren baldintzak betetzen ez dituztela pentsaraztera eramaten dutenak.

BEZEROAK berariaz aitortzen du ez diola ibilgailua hitzartutako kontratuan ageri ez den beste pertsona bati gidatzen utziko, eta BEZEROAK baldintza horiek betetzen baditu, ibilgailuan edo hirugarren bati eragindako edozein kalteren arduradun egiten dela.

#### Portugalerako:

Era berean eta itsasontzi edo kasu horietan beharrezkoa den beste garraiobide baten bidezko zeharkaldietako arriskuak saiheste aldera, BEZEROAK berariaz hartzen du konpromisoa Portugal kontinentaletik kanpora ez joatea alokatutako ibilgailuarekin, ezta beste inora ere Madeira irlatik kanpo.

BEZEROAK ezin izango du lurralde nazionaletik kanpo atera alokatutako autoa, autoa alokatzeko unean, CENTAURO-ren bulegoan asmo horren berri eman duenean izan ezik; kasu horretan, errepideko asistentzia harpidetu beharko du, eta ondorioz, Espainiara joateko eskumena izango du, egoera horretan zirkulatzea onartuko litzatekeen lurralde bakarra.

Kontratu honetako alderdi bakoitzak bere egindako betebeharrak betetzen ez badira, beste alderdiek bete dezala eskatzeko edo kontratua amaitutzat jotzeko gaitasuna emango dio, baita ibilgailua berreskuratzeko beharrezko neurriak hartzeko ere (maizterrak betetzen ez badu), edo ordaindutako zenbatekoak itzultzeko

(alokatzaileak betetzen ez badu), eta hori guztia arauak ez betetzearen ondorioz sortu litezkeen kalteak erreklamatzeko aukerari kalterik egin gabe.

Gidaririk gabeko ibilgailu honen alokairu-kontratua BEZEROAK ibilgailua modu pribatuan erabiltzeko eskuragarri izan dezan egiten da, eta bere egiten ditu ibilgailua oker erabiliz gero sor litezkeen erantzukizun zibil, administratibo edota penalak, edota ibilgailuarekin sortutako edozein arau-hauste administratibo edo penalen komisioa.

BEZEROAK egindako edozein jardueraren ondorioz CENTAUROk aurre egin beharreko erantzukizun zibilaren komisioak, edo arau-hauste administratibo edo penalak eragindako komisioak, kalte-ordainen edo zigorren zenbatekoa erreklamatzera ez ezik, erabateko galera ekonomikoa eta alokairu-kontratu honen xede den ibilgailua ezin erabiltzearen ondorioz sortutako kalteen zenbatekoa ere eskatzeko eskumena emango dio CENTAUROri.

Centauro-n urtero gure ibilgailuak berritzen ditugu eta azken modeloak eta fidagarritasun handiena eskaintzen ditugu. Hori dela eta, Centaurok ibilgailuak denbora/kilometraje jakin batean bakarrik mantentzen ditu bere flotan.

Parametro hauek ez betetzeak Centauro-ri kalteak eragin diezazkioke. Hori dela eta, Centaurok eskubidea du, kontratuaren iraupenean, Bezeroari entregatu zaion ibilgailua aldatzeko, baldin eta ibilgailua Centauroren flotan denbora-tarte jakin batean egon bada edo dagoeneko kilometro jakin batera iritsi bada.

Denbora tarte edo kilometraje horren arabera, beharrezkoa izan daiteke, kontratua irauten duen bitartean, bezero bati entregatutako ibilgailua beste ibilgailu baliokide batengatik aldatzea, hau da, kontratuan hitzartutako kategoriakoa. Bezeroari berehala jakinaraziko zaio ibilgailua aldatzeko beharraz eta behartuta dago ibilgailua itzultzera, ezarritako Centauroren bulegoan zehaztutako egunean eta orduan, baita ibilgailua aldatzeko beharrezkoak diren beste neurriak betetzera ere. . . Inguruabar hori ez da kontratu-harremanaren amaieratzat hartzen.

Bezeroak ibilgailua itzultzen ez badu edo zehaztutako orduan eta egunean itzultzen ez badu, atzerapen egun bakoitzeko zigor bat ordaindu beharko du “6. Erreserba Baldintzak” Merkataritza Baldintzak. Era berean, Centaurok eskubidea du sor daitezkeen kalteengatik kalte-ordain gehigarria eskatzeko.

## **2. ALOKATZAILEAK IBILGAILUA ERABILTZEA**

CENTAUROK berariaz adierazten du entregatutako ibilgailuak gaintitu dituela egin zaizkio barneko kontrol eta azterketa mekanikoak, eta BEZEROAK xede horretarako izenpetu duen orrian agertzen den egoera orokorrean dagoela, beharrezko dokumentazioa, tresnak eta osagarri egokiak dituela, eta pneumatiko guztiak (ordezkoa edo konpontzeko kita barne) egoera onean eta zulatu gabe daudela.

BEZEROAK berariaz konpromiso hauek hartzen ditu:

- Ibilgailua egoera onean mantentzea eta balizko arriskuetatik aldentzea.
- Lurralde bakoitzari aplikatzen zaizkion Zirkulazio-kodearen arauak errespetatzea eta trafiko-arauak betetzen direla bermatzea, dagokion ibilgailu mota erabiltzeko dauden zehaztapenen arabera. Eta bereziki, alderdiek adosten dute Zirkulazio-kodea edo legeak urratzea dakarren edo trafikoaren segurtasunaren aurkako delitu bat egiteak dakarren edozein arau-hauste kontratu honetan hartutako betebeharrak funtsean bete ez direla ulertuko da, eta ondorioz, kontratua amaitu egingo da eta/edo dagozkion kalte-ordainak eskatuko dira (gainera, dagozkion zigorrak ere eskatuko dira kontratua ez betetzeagatik), jokabide horien ondorioz CENTAUROri eragindako gastuak eta zerbitzu-sariak barne.
- Ezin zaio ibilgailua beste edonori alokatu, pertsonak edo Legea edo indarrean diren lege-xedapenak urratzen dituen pertsonak salgaiak garraiatu, ezta bere kopuruak (pisua, kopurua eta/edo bolumena) ibilgailuaren fabrikatzaileek edo legeek zehaztutako mugak gaintitzen badituzte.
- Ezin da gidatu edari alkoholikoen, drogen edo beste substantzia estupefaziante batzuen mende, ezta nekearen edo

gaixotasunen ondorioz gaitasunak gutxituta edo seguru gidatzea aholkatzen ez den beste egoera batean.

- Ezin da erabili ibilgailua beste ibilgailu, atoi edo objektu biratzaile (edo ez) batzuk bultzatzeko edo atoia eramateko.
- Ezin da parte hartu kirol lehiaketa edo lasterketetan ofizialetan, edo bestelakoetan.
- Ezin da materialen, osagarrien edo eman ez diren eta CENTAUROk baimendu gabeko automobileko produktuak erresistentzia-probak egiteko erabili.
- Ezin da garraiatu garraiatzea debekatuta dagoen edo administrazioaren baimena behar den objekturik edo merkantziarik, ezta merkantzia sukoirik, arriskutsurik, erradioaktiborik, toxikorik edo kaltegarriarik.
- Ezin da ibilgailuaren edozein zati (dokumentuak, giltzak eta osagarriak barne) edo ibilgailua bera berme gisa eman, pignoratu, saldu, alokatu, laga, hipotekatu, eman edota aldatu.
- Itxi ibilgailua behar den moduan, aparkatu onartutako toki egoki eta seguru batean erabiltzen denean, eta barruan dagoen dokumentazioa bertan gorde eta mantendu une oro.
BEZEROAK aukeratzen duen modalitatea aukeratzen duela, bera izango da erantzule CENTAUROren aurrean egoera hauetako baten ondorioz sortutako kalte eta galera guztien zenbateko osoa ordaindu arte (baita ibilgailua ezin alokatzeagatik galdutako irabazia ere):

- Trafiko-arauak era larrian urratu ostean sortutako istripuek eragindako kalteak, edo trafiko-segurtasunaren aurkako delitua den jokabide baten ondorioz sortutako istripuenak.
- Alkoholaren edo drogen eraginpean gidatzeak eragindako kalteak.
- Alokaturako ibilgailuan izandako kalteak, gidatze desegoki edo KLIENTEAREN edo baimendutako gidarien arduragabeko jokabidearen ondorioz izandako istripuen ondorioz, desadostasun kasuetan epaitegi prozeduran. Kasu guztietan, Italiako Zibilaren Kodearen 1.588. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.
- Ibilgailua irekitzeko alokatzaileari emandako bigarren giltza parean edo tapizerian eragindako kalteak.
- Meteorologia-fenomenoen ondorioz sortutako kalteak, baita horiek sortutako laguntza-gastuak ere (ezinbesteko gertaerak izan ezik).
- Herrialdetik kanpo ibilgailuari egindako kalteak, derrigorrezko errepideko laguntzaren kanpoko estaldura kontratatu ez bada.
- Errepideko laguntza, erregaia izoztuz gero
- Haurren aulkiak kaltetzea/galtzea.
- Giltzak, katua, segurtasun-hirukiak, txalekoak, haizetako-garbigailuak, gasolina-edukiontzia-aren tapa, maletategiko erretiluak edo ibilgailuaren beste edozein osagai finko edo mugikor kaltetzea/galtzea/lapurtzea, ezta su-itxalgailuak edo mediku-kitak ibilgailuarekin izandako ezbeharretatik kanpo erabiltzea ere.
- Motorreko kalteak zabarkeriagatik.
- Okerreko gasolina botatzeak eragindako kalteak.
- Ibilgailua lapurtzea giltzak jarrita zituela.
- Alokairuko epean trafikoko arau-hausteengatik edo lege-urratzeengatik jarritako isunak ibilgailu-gidariaren ardura dira. Isunen bat jasoz gero, 40 € kobratuko dira Espainian, Portugalen eta Grezian kontratua bete ez izanaren zigor gisa, jakinarazitako zigor bakoitzeko (bezeroak eskubidea izango du isunen zigorraren

dirua itzultzeko, isuna bertan behera uzten duen ebazpen administratibo edo judizial bat ematen bada).

- BEZEROAREN bidesari-kontsumoak, baita horietatik eratorritako beste edozein zenbateko ere (errekarguak eta abar). Gainera, BEZEROAK 40 €-ko kargu bat ordaindu beharko du kontratu bakoitzeko kudeaketa-gastuengatik dira Espainian, Portugalen eta Grezian (arau-haustearen izapide ofizialen bidea kontuan hartu gabe kobratuko da zenbateko hori).

### **6.3 BEZEROAREN ONDASUNEI eragindako kalteak**

Ibilgailuan dauden BEZEROAren jabetzako ondasunak kaltetzea, galtzea edo lapurtzea bere ardura izango da erabat eta bakarrik, eta ez ditu inolako seguruk estaltzen eta aurreko atalean adierazitako modalitatearen bat ere estaltzen. CENTAUROk ez du alokairua amaitu eta gero BEZEROAK ibilgailuan utzitako bere jabetzeko ondasunak zaintzeari edo bidaltzeari buruzko ardurarik bere egiten. .

## **7. ISTRIPUAK**

Ibilgailuak trafiko-istripu bat eduki edo kalteak izan baditu, BEZEROAK konpromisoa hartzen du 48 orduko epean CENTAUROri jakinarazteko, baita hirugarrenik tartean ez denean ere.

Edonola ere, istripuaren unean, BEZEROAK:

- Beste aldearen datu guztiak eta istripuari buruzko ezaugarri guztiak eskuratuko ditu.
- Istripuaren adierazpen adiskidetsua izenpetu ezin bada, berehala jakinaraziko dio poliziari eta polizia-txostenaren kopia bat lortuko du.

BEZEROAK istripuaren adierazpen adiskidetsua edo polizia-txostena aurkezten ez badu, BEZEROA istripuaren arduradun izan dela pentsatzeko eskubidea gordetzen du CENTAUROk.

Bezeroak gertaera kaltegarria izan den egoerari buruz egiten dituen aitorpen eta adierazpenetan, ahozkoetan nahiz idatzizkoetan, egia esateko konpromisoa hartuko du. Bezeroak Centauro-ren eta haren aseguratzailearen aurrean erantzungo du adierazpen edo aitortza faltsuak, okerrak edo partzialak eginda sor litezkeen kalteengatik.

Centauro-k Bezeroaren aitorpenak edo adierazpenak ez onartzeko eskubidea gordetzen du.

## **8. KONPONKETAK, KOIPEZTATZEAK, OLIOAK ETA ERREGAIAK.**

BEZEROAK likidoen mailak kontrolatu beharko ditu 1000 kmz behin, eta behar dena bota beharko du. Likidoak ordezteak eta botatzeak eragindako gastuak (zabarkeriak sortutakoak izan ezik) ordaindu egingo dira, zerbitu horiek egin izanaren egiaztagiriak aurkeztuta. Kalteen eta/edo hausturen konponketak CENTAUROk berariaz baimendutako tailerretan egiten badira, hark ordainduko ditu, baldin eta ezarritako baldintzak betetzen badira. Konponketa CENTAUROk baimendu gabeko tailerretan egin behar izanez gero, alde zuzenetik eskatuko da baimena, eta BEZEROAK ordaindu dituen konponketen kostu guztia itzuliko dio, egindako zerbitzuen eta horien zenbatekoa ageri diren ordainagiria aurkezten duenean.

BEZEROAK erregai egokia botata itzuli beharko du ibilgailua, eta hark ordaindu beharko du erregai horren zenbatekoa.

Ibilgailua itzultzeko unean, CENTAUROk erregaia ordaintzen dela bermatzeko BEZEROAK gordailu gisa emandako zenbatekoa itzuliko dio, BEZEROAK kontratatutako alokairuaren baldintzetan hala xedatzen denean berariaz.

Konsumitutako erregaiaren prezioa merkatuko erregaiaren batez besteko prezioaren arabera kalkulatu da. Informazio gehiago lortzeko, kontsultatu Baldintza komertzialak [centauro.net](http://centauro.net) helbidean.

## **9. JURISDIKZIOA ETA LEGE APLIKAGARRIA**

Kontratu hau Italiako legeek zuzenduko dute.

BEZEROA kontsumitzaile gisa joan badaiteke, balizko gatazka kontsumitzailearen jurisdikzioaren arabera soilik tratatuko dira.

Zerbitzua kontratatzen duen aldea kontsumitzaile bat bada, alderdiek berariaz onartzen dute gatazka CENTAUROren sozietate-egoitza dagoen tokiko Auzitegiek soilik tratatzea.

Bezera jakinarazten zaio eskura duela webgune honetan CENTAUROren Bezera arreta- eta erreklamazio-zerbitzua, baita

kontsumo-auzien ebazpen alternatiboko erakundeei buruzko informazioa ere: <https://www.centauro.net/ayuda-sobre-el-alquiler-del-coche/formulario-contacto/>

Aurrekoari kalterik egin gabe, eta lurreko garraiobideen antolaketari buruzko uztailaren 30eko 16/1987ko Espainiako Legearen 38. artikulua dioenari berariaz jarraikiz, CENTAUROk berariaz adierazten du ez duela nahi ibilgailuen alokairu-zerbitzuak kontratatzearen ondorioz sortutako edozein gatazka Garraioaren arbitraje-batzordeak ebazterik.

## **10. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA**

**Datuen tratamenduaren arduraduna.** CENTAURO RENT A CAR ITALY, S.r.L. unipersonal (**'CENTAURO'**), sozietatearen helbidea Trenton duena (TN), Via Benedetto Giovanelli 37, 38122, sozietate hori beste honek koordinatzen eta zuzentzen du: CENTAURO RENT A CAR, S.L.U. Zerga-kodea eta Trentoko Enpresen erregistroko erregistro-zenbakia: 02480910229, sozietatearen kapitala 10.000 € (iv). Helbide elektronikoa: [dpo@centauro.net](mailto:dpo@centauro.net). Telefonoa: (+39) 0683 662 959. I.

**Datu pertsonalen tratamenduaren helburuak.** Kontratu-harremana sortzeari dagokionez: bezeroaren eskaeraz arduratzea harreman komertziala kudeatu eta bere beharrak betetzeko. Bezeroaren eta Centauro-ren arteko kontratuzko eta aurrekontratuzko betebeharrak lotesleak betetzen direla kudeatzea. Gidaririk gabeko ibilgailuen eta zerbitzu osagarrieen alokairu-zerbitzuak "in situ" ematea. Betebeharrak judizialei dagokienez. Betebeharrak edo araudi judizialak betetzea. Ibilgailua geokokatze agintariak eskatuz gero. Centauro-ren interes legitimoari dagokionez. promozio-ekintzak egitea, edozein bitartekoren bidez, kontratuak estaltzen dituen produktuen eta zerbitzuen antzekoak eskaitzeko. Bezeroaren gogobetetze-maila aztertzea eta bere beharren analisia egitea, eskaintza bere profilerak egokitzeko. Bezeroaren ahotsa edo irudia grabatzea, zerbitzuaren kalitatea mantentzeko, eta beharrezkoa balitz, erreklamazioak eta beste prozedura batzuk kudeatzeko. Centauro-ren instalazioetan ibilgailua geokokatzea eta, hala balegokio, lapurtu edo bidegabe eskuratuz gero. Bezeroaren onespenez oinarriari dagokionez. Bezeroaren beharrak aztertzea, barneko eta kanpoko iturriak

kontsultatuta, bere hobespenen araberrako publizitate interesgarria eta segmentatua bidaltzeko. Nortasuna eta dokumentazioa egiaztatzea aurpegi bidezko ezagutzaren bidez. Ibilgailuaren geokapena erabiltzaileak eskatutako laguntza emateko. Gidatzeari buruzko datuak biltzea, ondoren aztertzeko. **II. Datu pertsonalen hartzaileak.** Agintari publikoak, agintari arautzaileak eta tokiko agintariak. Aseguru-konpainiak errepideko laguntza emateko ibilgailuekin istripuak edo trafik-istripuak edukiz gero. Zure datuak Centauro-ren eta bere Taldeko (Grupo Mutua Madrileña) enpresei jakinaraztea, bereziki hauei: MUTUA MADRILEÑA AUTOMOVILISTA, S.S.P.F.; AUTOCLUB MUTUA MADRILEÑA, S.L.U.; MUTUAMAD MOBILITY, S.L.U.; SILDOSCAN SPAIN, S.L.; CENTAURO RENT A CAR, S.L.U.; NORDIC BUS, S.L.U.; CENTAURO RENT A CAR ITALY, S.r.L.; CENTAURO RENT A CAR, L.D.A.; NORDICWHEELS, L.D.A.; CENTAURO RENT A CAR GREECE, SINGLE MEMBER S.A., alokairu-zerbitzuak ongi exekutatzen eta prozedura administratibo informatizatuak zentralizatzen, baita Centauro-rekin lankidetzan ari diren hirugarrenen enpresak ere. **III. Bezeroaren eskubideak datuen pertsonalen babesari dagokionez.** Goian adierazitako helburuetarako tratatu diren datu pertsonalei dagokionez, bezeroak datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzen eta mugatzeko eskubideak gauza ditzake, baita datuak tratatzeari uko egin eta datuak eramateari buruzko ere, eta erabaki automatizatuak ez egitea ere aukera dezake, "Informazio gehiago" atalean xedatzen den moduan. **IV. Informazio gehiago.** Centauro-k datu pertsonalei nolako tratamendua ematen dien sakonago jakin nahi izanez gero, joan gure webgunera: <https://www.centauro.net>. Aurrez azaldu denari jarraikiz, Centauro-k eskain ditzakeen produktuei eta zerbitzuei buruzko eskaintza onenak bidali ahal izateko, gehienetan bezeroen interesari erantzuten dietenak, beharrezkoa da onepen hau ematea: Onartzen dut Centauro-k **kontsumitzaile gisa dudako portaerari buruzko profil bat sortzea** barruko eta kanpoko informaziotik abiatuta, baita nire datuak bere publizitate-bazkideei ematea ere, nire beharretara egokitutako produktuei edo zerbitzuei buruzko eskaintza bereziak bidaltzeko □

**Bai**

## **GREZIAN GIDARIRIK GABEKO IBILGALUAK ALOKATZEKO BALDINTZA OROKORRAK**

### **1. ALDEAK ETA BALDINTZA OROKORRAK**

CENTAURO-k alokatzaile gisa, BEZEROARI (kontratu honen xedeetarako, BEZEROA izango da gidari nagusia eta, solidarioki, ordaintzailea ere), maizter bihurtzen dena, kontratu honen helburu den ibilgailua (edo beharrezko balitz, haren ordeiz emango litzatekeena) alokatzen dio centauro.net helbidean, dokumentu honetan eta/edo hari erantsitako edozein eranskinetan eskura daitezkeen CENTAUROren Baldintza komertzialetan xedatzen diren zehaztapen, baldintza eta tarifen arabera; eta BEZEROAK berariaz adierazten du kontratu hau osatzen duten baldintzak betetzeko konpromisoa hartzen duela, eta irakurri eta onartu dituela baldintza horiek, eta ez duela haiei buruzko zalantzarik edo desadostasunik.

Berariaz ohartarazten zaio BEZEROARI balitekeela CENTAUROk eskainitako zerbitzuak ez ematea eskatzaileak CENTAUROrekin aurrez hitzartutako kontratuetan zehaztapenak eta baldintzak bete ez dituela behar den modua justifikatuta, bai emandako zerbitzuak ordaindu ez dituelako, bai kontratatutako zerbitzuak bidegabe luzatu dituelako CENTAUROri aldeztu aurretik jakinarazi gabe edo haren onepenik gabe, eta hori guztia aplikatu daitezkeen kontsumoaren inguruan indarrean den legedian berariaz aurreikusten denari jarraikiz, eta legezko eskubideei kalterik egin gabe.

Motorrezko ibilgailuak gidatzetik eratorritako arriskuak objektiboki gutxitzeko xedez, ezin izango dira gehitu gidari gisa ibilgailuaren kontratuan, honako pertsona hauek:

1) Hemeretzi (19) urte baino gutxiago dituztenak.

Aurrez esan denari kalterik egin gabe eta enpresa honek argitaratutako indarrean diren tarifen arabera, BEZEROARI berariaz ohartarazten zaio Kontratua izenpetzeko unean 19-24 urte bitarteko adina duten gidariek “gidari gaztea” izeneko kargu estra bat ordaindu beharko dutela, eta 75 urte edo gehiago dituzten gidariek “senior gidaria” izeneko kargu estra bat ordaindu beharko dutela.

2) Indarrean duten gidabaimenak urtebete (1) baino gutxiago badu, indarrean ez badago, edo ibilgailu entregatzen den herrialdea

homologatu gabe badago (BEZEROA izango da gidabaimena indarrean eta homologatuta dagoen egiaztatze arduradun zuzena; Centauro Rent a Car edozein kontzeptutatik salbuetsita geratuko da.

3) Gidari nagusi izanik gidabaimenaren jatorrizko dokumentua erakusten ez badute dokumentu hau sinatzeko unean, gure webguneko digitalizazio-plataformaren bidez aldeztu aurretik Centauro IDa lortu duten kasuetan izan ezik.

4) Zigor penalak edo legalak izan dituzten gidabaimenen jabeak.

5) Kontratatzeko unean ageriko ezintasun fisiko edo buruko ezintasun bat erakusten dutenek, eta beraz, gidatzeko baldintzak egokietan ez daudenak.

BEZEROAK berariaz aitortzen du ez diola ibilgailua hitzartutako kontratuan ageri ez den beste pertsona bati gidatzen utziko, eta egoera horretan ibilgailuan edo hirugarren bati eragindako edozein kalteren arduradun egiten dela.

#### Greziaren kasuan:

Ez da onartzen mugak gurutzatzea (lurralde nazionaletik irtetea). Edozein tokitan jasotako ibilgailuak ezin izango dira ferryan, itsasontzietan edo irla batetik bestera edo irletatik kontinentera lekualdatzeko beharrezkoa den beste garraio bide batean eraman.

Alderdi bakoitzak bere egindako betebeharrak betetzen ez badira, baimena ematen dio beste alderdiari bete dezala eskatzeko edo Kontratua amaitutzat jotzeko, baita ibilgailua berreskuratzeko beharrezko neurriak hartzeko ere (maizterrak betetzen ez badu), edo ordaindutako zenbatekoak itzultzeko (alokatzailak betetzen ez badu), eta hori guztia arauak ez betetzearen ondorioz sortu litezkeen kalteak erreklamatzeko aukerari kalterik egin gabe.

Gidaririk gabeko ibilgailu honen alokairu-kontratua BEZEROAK ibilgailua modu pribatuan erabiltzeko eskuragarri izan dezan egiten da, eta bere egiten ditu ibilgailua oker erabiliz gero sor litezkeen erantzukizun zibil, administratibo edota penalak, edota sortutako edozein arau-hauste administratibo edo penalen komisioa.

BEZEROAK egindako edozein jardueraren ondorioz CENTAUROk aurre egin beharreko erantzukizun zibilaren komisioak, edo arau-hauste

administratibo edo penalak eragindako komisioak, kalte-ordainen edo zigorren zenbatekoa erreklamatzera ez ezik, alokairu-kontratu honen xede den ibilgailua ezin erabiltzearen ondorioz sortutako kalteen zenbatekoa ere eskatzeko eskumena emango dio.

Aurrekoari kalterik egin gabe, BEZEROAk berariaz adierazten du ez duela erabiliko eta ez duela onartuko alokairuko ibilgailua bidaiarien noizean behingo garraio publiko gisa edo garraio pribatutako jardueretarako (adibidez, bidaia partekatuak edo taxia eta abar) erabiltzea. Estatuko segurtasun-indarrek, edo hori egiteko eskumena duen beste edozein agintarik, Kontratu honetan deskribatutako ibilgailua ekintza horiek egiteagatik zigortuko balute, CENTAUROk berariaz gordetzen du, BEZEROaren aurrean, edozein jurisdikziotan beharrezkoak diren ekintza guztiak gauzatzeko eta, bereziki, balizko arau-hauste horrengatik dagozkion zigor-prozedurak hasteko.

Centauro-n urtero gure ibilgailuak berritzen ditugu eta azken modeloak eta fidagarritasun handiena eskaintzen ditugu. Hori dela eta, Centaurok ibilgailuak denbora/kilometraje jakin batean bakarrik mantentzen ditu bere flotan.

Parametro hauek ez betetzeak Centauro-ri kalteak eragin diezazkioke. Hori dela eta, Centaurok eskubidea du, kontratuaren iraupenean, Bezeroari entregatu zaion ibilgailua aldatzeko, baldin eta ibilgailua Centauroren flotan denbora-tarte jakin batean egon bada edo dagoeneko kilometro jakin batera iritsi bada.

Denbora tarte edo kilometraje horren arabera, beharrezkoa izan daiteke, kontratua irauten duen bitartean, bezero bati entregatutako ibilgailua beste ibilgailu baliokide batengatik aldatzea, hau da, kontratuan hitzartutako kategoriakoa. Bezeroari berehala jakinaraziko zaio ibilgailua aldatzeko beharraz eta behartuta dago ibilgailua itzultzera, ezarritako Centauroren bulegoan zehaztutako egunean eta orduan, baita ibilgailua aldatzeko beharrezkoak diren beste neurriak betetzera ere. . . Inguruabar hori ez da kontratu-harremanaren amaieratzat hartzen.

Bezeroak ibilgailua itzultzen ez badu edo zehaztutako orduan eta egunean itzultzen ez badu, atzerapen egun bakoitzeko zigor bat

ordaindu beharko du “6. Erreserba Baldintzak” Merkataritza Baldintzak. Era berean, Centaurok eskubidea du sor daitezkeen kalteengatik kalte-ordain gehigarria eskatzeko.

## **2. ALOKATZAILEAK IBILGAILUA ERABILTZEA**

CENTAURO-k berariaz adierazten du ibilgailuak gainditu dituela egin zaizkion barneko kontrolak eta azterketak mekanikoak, eta BEZEROAK xede horretarako izenpetu duen orrian agertzen den egoera orokorrean dagoela, beharrezko dokumentazioa, tresnak eta osagarri egokiak dituela, eta pneumatiko guztiak (ordezkoa edo konponketa kita barne) egoera onean eta zulatu gabe daudela.

BEZEROAK berariaz konpromiso hauek hartzen ditu:

- Ibilgilua egoera onean mantentzea eta balizko arriskuetatik aldentzea.
- Lurralde bakoitzari aplikatzen zaizkion Zirkulazio-kodearen arauak errespetatzea, dagokion ibilgailu mota erabiltzeko dauden zehaztapenen arabera. Eta bereziki, alderdiek adosten dute Zirkulazio-kodea edo legeak urratzea dakarren edo trafikoaren segurtasunaren aurkako delitu bat egiteak dakarren edozein arau-hauste kontratu honetan hartutako betebeharrak funtsean bete ez direla ulertuko da, eta ondorioz, kontratua amaitu egingo da eta/edo dagozkion kalte-ordainak eskatuko dira eragindako kalteengatik (gainera, dagozkion zigorrak ere eskatuko dira kontratua ez betetzeagatik), jokabide horien ondorioz CENTAUROri eragindako gastuak eta zerbitzu-sariak barne.
- Palma Mallorcako bulegoan entregatzen den ibilgailuaren edo Calvià aldean gidatu behar duten alokairuetan, eta Zirkulazioko udal ordenantzan berariaz zehaztutakoa betetzeko, xede horretarako egokitutako tokian, CENTAUROk emandako izenpetutako kontratua erakutsi beharko da. Betebehar hori berariaz gehitzen duten gainerako udalerrietan ere beste horrenbeste egin beharko da.
- Ezin zaio ibilgailua beste edonori alokatu, pertsonak edo Legea edo indarrean diren lege-xedapenak urratzen dituen pertsonak edo salgaiak garraiatu, edo ibilgailua besteri aldatu jarduera

horiek egiteko, ezta bere kopuruak ere (pisua, kopurua eta/edo bolumena) ibilgailuaren fabrikatzaileek edo legeak zehaztutako mugak gainditzen badituzte.

- Ezin da gidatu edari alkoholikoen, drogen edo beste substantzia estupefaziante batzuen mende, ezta nekearen edo gaixotasunen ondorioz gaitasunak gutxituta edo gidatzea aholkatzen ez den beste egoera batean.
- Ezin da erabili beste ibilgailu, atoi edo objektu biratzaile (edo ez) batzuk bultzatzeko edo atoaia eramateko.
- Ezin da parte hartu kirol lehiaketa edo lasterketetan, ofizialak izan ez edo ez.
- Ezin da materialen, osagarrien edo eman ez diren eta CENTAUROk baimendu gabeko automobileko produktuak erresistentzia-probak egiteko erabili.
- Ezin da garraiatu garraiatzea debekatuta dagoen edo administrazioaren baimena behar den objekturik edo merkantziarik, ezta merkantzia sukoirik, arriskutsurik, erradioaktiborik, toxikorik edo kaltegarriarik.
- Ezin da ibilgailuaren edozein zati (dokumentuak, giltzak eta osagarriak barne) edo ibilgailua bera berme gisa eman, pignoratu, saldu, alokatu, laga, hipotekatu, eman edota aldatu.
- Itxi ibilgailua behar den moduan, toki egoki eta seguru batean, erabili behar ez denean, eta gorde bere dokumentazioa ibilgailuaren barruan.
- Gelditu berehala ibilgailua akats tekniko bat dagoela pentsatzera ematen duen kanpoko zantzu edo zantzu esplizitu txikiena agertzen denean (adierazleak). Kasu horietan, BEZEROA ahalik eta lasterren jarri beharko da harremanetan gertuen duen CENTAUROren bulegoarekin edo hark izendatutako Laguntza-konpainiarekin, eta uko egingo zaio beste enpresa bat erabiltzeagatik sortutako zorrak ordaintzeari, erabateko larrialdiko kasuetan izan ezik.
- Ezin da gidatu alokatutako ibilgailua gidatzeko egokiak ez diren pasatu ezin daitekeen edo asfaltorik gabeko errepideetatik, karrozeriaren behealdean kalteak sor daitezkeelako baita beste kalte mota batzuk ere.

- Jarraitu berariazko argibideei eta ordaindu dagozkien ordain-sariak ordainpeko errepideetan.

### **3. IBILGAILUA ITZULTZEA**

Ibilgailua entregatutako egoera berean itzuliko da eta dokumentu, osagarri eta ekipo berekin, kontratatutako alokairu-aldia amaitzeko hitzartutako tokian, datan eta orduan. BEZEROAK berariaz bere egiten ditu CENTAUROk berariaz baimendutako alokairu-ibilgailuan egindako aldaketek eragindako ondorio juridikoak. Ibilgailua Kontratuan ezarritako datan eta orduan itzultzen ez bada, Centauro Rent a Car-ek aurreikusitako itzultzeko data eta gero ibilgailua erabili den egun osagarriak kobra diezazkie bezeroei, gehi eguneko 50 €-ko zigorra.

Inola ere ez da alokairu-kontratua isilbidez luzatutzat emango BEZEROAK alokairu-kontratua amaitzeko hitzartutako data iristean ibilgailua itzultzen ez badu, eta kasu horretan beharrezkoa izango da CENTAUROren berariazko eta idatzizko baimen bat luzapen hori egiteko (eta BEZEROAK beste erreserba bat egin beharko du libre dauden ibilgailuen arabera eta dagokion tarifaren zenbatekoa ordainduta).

BEZEROA izango da ibilgailuari eragindako edozein kalteren arduradun alokairua amaitu eta ibilgailua itzuli arte, eta CENTAUROk kalte-ordaina eska dezake sortutako kalteengatik.

Gainera, CENTAUROk dagozkion ekintza judizialak has ditzake alderdien artean berariaz hitzartu dena bete dadin eskatzeko, eta dagokion ekintza penala ere dei dezake balizko bidegabeko jabetza-delitua aldarrikatuz eta estatutako segurtasun-indarrei ibilgailua gelditu eta mugiezin uzteko.

### **4. ALOKAIRU-TARIFAK**

Alokairu-kontratu hau betetzeko, BEZEROAK ordainketa hauek egin beharko ditu:

- Ibilgailua alokatzeagatik sortutako karguak eta zergak, eta dokumentuak, osagarriak eta/edo tresnak galdu direlako horiek ordezteko balioaren karguak.

- Beharrezkoa bada, ibilgailua itzuli denean, oso zikina itzultzen bada, eta zikinkeria hori ibilgailuaren erabilera normalarekin bat ez badator, garbiketaren zordunketa osagarri bat kobratuko da, gehienez ere 100 €-koa, emandako zerbitzuaren zenbatekoa aldeztu aurretik justifikatu eta gero.
- BEZEROAK kontratuan hitzartutako baldintzak aldatzen baditu, alokairua amaitutakoan ibilgailua hasieran aukeratutako tokia ez den beste toki batean entregatzea eskatzen duelako, edo hasieran gidari gehigarri gisa sartu ez den pertsona batek ibilgailua gidatzea baimentzen duelako, egoera bakoitzean indarrean diren tarifak ordaindu beharko ditu.
- Ibilgailuaren alokairu-kontratua likidatu eta gero, BEZEROAren aldeko zenbateko bat geratzen bada, CENTAUROk berehala itzuliko dio zenbateko hori hasierako ordainketa egin zen modu berean, eta ez du banku- edo kreditu-erakundearen egin beharreko kudeaketaren ondorioz gerta litezkeen atzerapenen erantzukizunik bere egingo.
- BEZEROAK laguntzaren bat eskatuko balu, **atoian eramateak edo laguntza horrek eragindako beste edozein gastu ordaindu beharko du**, ibilgailuaren matxura tekniko baten ondorioz sortutako laguntza bat denean eta CENTAUROk xede horretarako izendatu dituen laguntza-enpresen bidez egin denean izan ezik.
- Kontratua indarrean den bitartean, BEZEROAK izandako bide-sariak, isunak, aparkatze-gastuak, zigorrak eta aplikagarri den araudiaren arabera izandako lege-gastuak (auto-pilaketaren edo trafiko-murrizketak sortutako gastuak, nahiz eta gastu horiek hasiera batean CENTAUROK ordaindu; baita alokairuko garaian alokatutako ibilgailuarekin lotutako beste edozein lege-gastu ere.

## **5. BALIZKO KARGU OSAGARRIAK**

Kontratu honetan bere egindako betebeharren bat betetzen ez badu, BEZEROAK kontratuaren baldintza orokorretan zehaztutako eta/edo horietatik eratorritako zenbatekoren bat ordaindu beharko du. BEZEROAK berariaz baimena ematen dio CENTAUROri kargu horiek xede horretarako emanda den kreditu-txartelean egiteko, aldezturik zergatik egiten den jakinarazi eta zenbatekoa justifikatuta.

Bereziki, BEZEROAK kontratu honetan islatutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz sortutako kalteen karguak onartzeko betebeharra duela adierazten du, kontzeptu hauengatik sortzen badira:

- Ibilgailuari eragindako edozein kalterengatik/galerarengatik kalte-ordaina, BEZEROAK estaldura justifikatu eta/edo kontratatu gabe badago, baita ibilgailua mugitu ezinik uzteak sortutako gastuak (errepideko laguntzak, garabiak, ibilgailu-gordailuak eta abar sortutako gastu justifikatuak)
- CENTAUROk isun moduan ordaindutakoaren baliokidea den kalte-ordaina, zirkulazio-hauste edo lege-hauste bakoitzeko gidari gisa baimendutako edozein pertsonak, errentariak berandutzeagatik zigorrak barne.
- BEZEROaren zabarkeriak eragindako kalteen zenbatekoari dagokion kalte-ordain baliokidea, zeinetan berariaz sartzen diren giltzak galtzea, okerreko erregaia botatzea eta alokatutako ibilgailuan barne-elementuak falta izatea.
- CENTAUROK ordaindutako zenbatekoaren pareko kalte-ordaina BEZEROAREN bidesari-kontsumoagatik, baita horietatik eratorritako beste edozein zenbateko ere (errekarguak eta abar). Gainera, BEZEROAK 40 €-ko kargu bat ordaindu beharko du kontratu bakoitzeko kudeaketa-gastuengatik dira Espainian, Portugalen eta Grezian.

## **6. IBILGAILUA ERABILTZETIK ERATORRITAKO KALTEEN ARAUAK**

### **6.1 HIRUGARRENEI eragindako kalteak**

Indarrean den araudiari jarraikiz, CENTAUROk une oro aseguru bat kontratatuta eta indarrean edukiko du lehen mailako konpainiekin, alokatutako ibilgailuaren gidariekin, aipatutako ibilgailua gidatzean, erantzukizun zibila eta hirugarrenei sortutako kalte pertsonalak eta materialak estaltzeko.

CENTAURO ibilgailuen flotaren aseguru konpainia hauetako batekin kontratatuko da: Generali, Mutua Madrileña, Groupama Mapfre, Reale, Zurich, Helvetia, Axa eta beste, eta aseguru horien estaldura nazionala izango da.

Aseguru horren estaldurak barne ditu, muga batzuetara arte, baimendutako gidariak berak jasandako kalte pertsonalak (heriotza, erabateko ezintasuna eta ezintasun partziala eta osasun-gastuak) (Espainian, Portugalen eta Grezian soilik balio du).

Kontratu hau sinatuz gero, aseguru honek baimendutako gidariak estaltzen ditu.

Aseguru-poliza honek estalitako erantzukizun-mugak, gutxienez, indarrean une oro derrigorrez aurreikusten direnak dira.

Kaltetutako hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe, BEZEROARI jakinarazten zaio poliza honek CENTAUROk erreklama dezakeen kalte oro estaltzen duen frankizia bat duela, eta zenbateko horiek Baldintza komertzialetan adierazten direla. Era berean, BEZEROARI jakinarazten zaio aseguru-polizan sartzen ez diren kalteak erreklama diezazkiokeela aseguru-konpainiak BEZEROARI.

BEZEROAK polizaren baldintza orokorrak edonoiz kontsulta ditzake.

### **6.2 IBILGAILUEI eragindako kalteak**

CENTAUROren hitzetan BEZEROA da berak, baimendutako gidariekin eta ibilgailuan doazen gainerakoekin ibilgailua egoki kontserbatzeko eta erabiltzeko ardura duena.

Aurrekoari eta dokumentu honetan aurrerago azaltzen denari kalterik egin gabe, CENTAUROk bi modalitatetan eskaintzen dio BEZEROARI ibilgailuaren alokairua.

BEZEROAK bere egiten du ibilgailuari eragindako kalteengatik CENTAUROren aurrean erantzuteko erantzukizuna, eta alokairuaren baldintza komertzialetan adierazitako Kalteen zenbatekoen zerrendaren arabera zehaztutako kontratatzeke unean.

A) Modalitate lehenetsia: erantzukizunaren salbuespen mugatua (Kalteen salbuespena talka eginez gero edo KST) + Ibilgailua lapurtzeagatiko salbuespen mugatua (Lapurreten aurkako babes edo LB)

Modalitate honetan, CENTAUROk BEZEROA partzialki salbuetsi egiten du ibilgailuari eragindako kalteen erantzukizunetik.

Baldintza hauen arabera, ibilgailuan eragindako kalteengatik gehienez ere kontratuan berariaz adierazitako zenbatekoa ordaintzera behartzen du BEZEROA CENTAUROk, FRANKIZIA atalean adierazten dena (zenbateko hori Baldintza komertzialetan aipatzen den zerrendaren arabera zehaztutakoa da).

Edonola ere, erantzukizun-muga hori gauzatzeko, ezinbestekoa izango da kalteen aitorpena eta, kasu honetan, salatutako isptripuari edo jazoerari buruzko datu guztiak biltzen dituen istripu-txostena/poliziaren txostena (ibilgailuaren datuak eta/edo tartean ziren pertsonak, gertatu denaren eta sortutako kalteen deskribapena) aurkeztea.

Era berean, modalitate honetan CENTAUROk partzialki salbuesten du BEZEROA ibilgailua edo haren zati edo osagai batzuk lapurtzeagatik sortutako kalteen erantzukizuna, kontratuko FRANKIZIA atalean berariaz adierazitako zenbatekoa izan ezik, zeina BEZEROAK ordaindu beharko duen.

Edonola ere, erantzukizun-muga hau indarrean sartzeko, alokatutako ibilgailuaren giltzak CENTAUROri itzuli beharko zaizkio gertatutakoaren berri ematen dionean, baita eskumena duten agintarien aurrean aurkeztutako salaketaren kopia bat ere.

Kontratu honen Baldintza komertzialetan zehazten den moduan, ibilgailua modalitate honetan alokatzean, BEZEROAk erantzukizun horiek ordaintzeko berme gisa gordailu bat ordaindu beharko du.

Aurrekoari aurkarik egin gabe, berariaz jakinarazten zaio BEZEROARI erantzukizunaren salbuespen mugatua ez dela iristen egoera hauetako batek sortutako kalteetara, kasu horretan CENTAUROk zenbateko osoa erreklamatu ahal izango du:

- Pneumatikoetan sortutako kalteak, bai pneumatikoei emandako kolpeengatik, bai alokatutako ibilgailuan pisu gehiegi eramateagatik.
- Ateetako sarrailetan edo zilindroetan eragindako kalteak, baita alokatutako leihoetan eragindakoak ere.
- Gurpilak, ibilgailuaren behealdeko piezak, sabaia, giltzen kopia, zilindroko sarraileak, eserlekuak eta alokatutako ibilgailuaren leihoak lapurtzeagatik eragindako kalteak.
- Ibilgailua osatzen duten zatietan edo elementuetan sortutako kalteak edo faltak, barrualdean, kanpoaldean eta mekanikoak, alokatutako ibilgailua lapurtu edo lapurtzen saiatu delako.

B) Aukerako modalitatea: Kalteengatik erabateko salbuespena (SMART tarifa)

Modalitate honetan, eta aurrez esan denari kalterik egin gabe, CENTAUROk guztiz salbuesten du BEZEROA ibilgailuari egindako kalteetatik edo “EDC + PR” modalitatean arduradun izango litzatekeen legez kanpo lapurtzearen ondorioz sortutakoetatik, kontratu honen Baldintza komertzialetan zehazten diren ibilgailuaren alokairu gisa zenbateko osagarriak ordainduz gero.

BEZEROAk ezin izango du kontratu modalitate hau aukeratu, alokairuaren kontratua izenpetu eta gero.

C) Aurreko bi kontratu-modalitate horiek estaltzen ez dituzten kalteak

BEZEROAk aukeratzen duen modalitatea aukeratzen duela, bera izango da erantzule CENTAUROren aurrean egoera hauetako baten

ondorioz sortutako kalte eta galera guztien zenbateko osoa ordaindu arte (baita ibilgailua ezin alokatzeagatik galdutako irabazia ere):

- Trafiko-arauak era larrian urratu ostean sortutako istripuek eragindako kalteak, edo bide-segurtasunaren aurkako delitua den jokabide baten ondorioz sortutako istripuenak.
- Alkoholaren edo drogen eraginpean gidatzeak eragindako kalteak.
- BEZEROAK edo baimendutako gidariak modu desegokian edo jokamolde oso zabarrean gidatzean sortutako istripuen ondorioz alokatutako ibilgailuan sortutako kalteak, baldin eta horrelakoen berri eman bada prozedura judizialean.
- Ibilgailua irekitzeko alokatzaileari emandako giltza parean edo tapizerian eragindako kalteak.
- Klima-fenomenoek eragindako kalteak, baita horiek sortutako gastuak ere (ezinbesteko gertaerak izan ezik).
- Herrialdetik kanpo ibilgailuari egindako kalteak, derrigorrezko errepideko laguntzaren kanpoko estaldura kontratatu ez bada.
- Errepideko laguntza, erregaia izoztuz gero.
- Haurren aulkiak kaltetzea/galtzea.
- Giltzak, katua, segurtasun-hirukiak, txalekoak, haizetako-garbigailuak, gasolina-edukiontzia-aren tapa, maletategiko erretiluak edo ibilgailuaren beste edozein osagai finko edo mugikor kaltetzea/galtzea/lapurtzea, ezta su-itxalgailuak edo mediku-kitak ibilgailuarekin izandako ezbeharretatik kanpo erabiltzea ere.
- Motorreko kalteak zabarkeriagatik.
- Okerreko erregaia botatzeak motorrean eragindako kalteak.
- Ibilgailua lapurtzea giltzak jarrita zituela.
- Alokairuko epean trafikoko arau-hausteengatik edo lege-urratzeengatik jarritako isunak ibilgailu-gidariaren ardura dira. Isunen bat jasoz gero, 40 € kobratuko dira Espainian, Portugalen eta Grezian kontratua bete ez izanaren zigor gisa, jakinarazitako zigor bakoitzeko (bezeroak eskubidea izango du isunen zigorraren dirua itzultzeko, isuna bertan behera uzten duen ebazpen administratibo edo judizial bat ematen bada).
- BEZEROAREN bidesari-kontsumoak, baita horietatik eratorritako beste edozein zenbateko ere (errekarguak eta abar). Gainera,

BEZEROAK 40 €-ko kargu bat ordaindu beharko du kontratu bakoitzeko kudeaketa-gastuengatik dira Espainian, Portugalen eta Grezian (arau-haustearen izapide ofizialen bidea kontuan hartu gabe kobratuko da zenbateko hori).

### **6.3 BEZEROAREN JABETZARI eragindako kalteak**

Ibilgailuan dauden BEZEROAren jabetzako ondasunak kaltetzea, galtzea edo lapurtzea bere ardura izango da erabat eta bakarrik, eta ez ditu inolako seguru-polizak estaliko, eta aurreko atalean adierazitako modalitateek ere ez dituzte estaltzen. CENTAUROk ez du alokairua amaitu eta gero BEZEROAK ibilgailuan utzitako bere jabetzeko ondasunak zaintzeari edo bidaltzeari buruzko ardurarik bere egiten.

## **7. ISTRIPUAK**

BEZEROAK CENTAUROri berehala edozein ezbehar jakinarazi eta ezbeharrari buruzko behar adina jakinarazpen egiteko konpromisoa hartzen du, baita ahalik eta lankidetzaz handiena emateko ere CENTAUROri nahiz Aseguru-konpainiari, edozein erreklamazioren edo prozesuren ikerketa eta defentsa egiteko.

Edonola ere, istripuaren edo ezbeharraren unean, BEZEROAK:

- Beste alderdiaren datu guztiak eta istripuari buruzko ezaugarri guztiak eskuratuko ditu.
- Istripuaren adierazpen adiskidetsua izenpetu ezin bada, berehala jakinaraziko dio poliziari eta polizia-txostenaren kopia bat lortuko du.

BEZEROAK istripuaren adierazpen adiskidetsua edo polizia-txostena aurkezten ez badu, BEZEROA istripuaren arduradun izan dela pentsatzeko eskubidea gordetzen du CENTAUROk.

Bezeroak gertaera kaltegarria izan den egoerari buruz egiten dituen aitorpen eta azalpenetan, ahozkoetan nahiz idatzizkoetan, egia esateko konpromisoa hartuko du. Bezeroak Centauro-ren eta haren aseguratzailaren aurrean erantzungo du adierazpen edo azalpen faltsuak, okerrak edo partzialak eginda sor litezkeen kalteengatik. Centauro-k Bezeroaren aitorpenak edo adierazpenak ez onartzeko eskubidea gordetzen du.

## **8. KONPONKETAK, KOIPEZTATZEAK, OLIOAK ETA ERREGAIAK.**

BEZEROAK likidoen mailak egiaztatu beharko ditu 1000 kmz behin, eta behar dena bota beharko du. Likidoak botatzeak eragindako gastuak (zabarkeriak sortutakoak izan ezik) ordaindu egingo dira, zerbitzu hori egin izanaren egiaztagiria aurkeztuta. Kalteetatik eta/edo matxuretatik eratorritako konponketak CENTAUROk berariaz xede horietarako hitzartutako tailerretan egingo dira, eta hark ordainduko ditu kalte edo matxura horietatik sortutako zenbatekoak, kontratu honetan zehaztutako baldintzak betetzen badira ere. Konponketa CENTAUROrekin hitzarmenik ez duten tailerretan egin beharrez gero, aldez aurretik onartu beharko da eta BEZEROAK ordaindu duen zenbatekoa itzuliko dio, egindako zerbitzuen eta horien zenbatekoa ageri diren ordainagiria aurkezten duenean.

BEZEROAK erregai egokia bota beharko du, eta hark ordaindu beharko du erregai horren zenbatekoa.

CENTAUROk gordailuan entregatutako zenbatekoa itzuliko du entregatzen den alokatutako ibilgailuaren erregaia ordaintzen dela bermatzeko, BEZEROAK aukeratutako kontratazio-modalitatearen baldintzetan hala xedatzen denean berariaz.

Kontsumitutako erregaiaren prezioa merkatuko erregaiaren batez besteko prezioaren arabera kalkulatu da. Informazio gehiago lortzeko, kontsultatu Baldintza komertzialak [centauro.net](http://centauro.net) helbidean.

## **9. JURISDIKZIOA ETA LEGE APLIKAGARRIA**

Kontratu hau Greziako legeen arabera zuzenduko da, eta bezeroa kontsumitzaile edo erabiltzaile gisa jotzen den kasuetan, sortutako edozein gatazka konpontzeko bide adiskidetsua erabiliz konpondu ezin bada, betebeharra bete behar den tokiari dagokion jurisdikzioaren mende egongo da, eta toki hori alokairua hasitako tokia izango da. Hori guztiak kontsumitzaileak babesteko indarrean den legean berariaz xedatzen diren xedapenei jarraikiz.

Zerbitzuaren kontratatzaileak kontsumitzaile edo erabiltzaile izaera merezi ez duen kasuetan, alderdiek adosten dute CENTAUROren sozietate-helbidea dagoen udalerriko jurisdikzioaren mende daudela.

Bezeroari jakinarazten zaio eskura duela webgune honetan CENTAUROren Bezeroaren arreta- eta erreklamazio-zerbitzuko inprimakiak, baita kontsumo-auziak ebazteaz arduratzen diren erakundeei buruzko informazioa ere: <https://www.centauro.net/ayuda-sobre-el-alquiler-del-coche/formulario-contacto/>

Aurrekoari kalterik egin gabe, eta Lurreko garraiobideen antolaketari buruzko uztailaren 30eko 16/1987ko Legearen 38. artikulua dioenari berariaz jarraikiz, CENTAUROk berariaz adierazten du ez duela nahi ibilgailuen alokairu-zerbitzuak kontratatzearen ondorioz Espainian sortutako edozein gatazka Garraioaren arbitraje-batzordeak ebazterik.

## **10. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.**

**Datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna:** CENTAURO RENT A CAR GREECE SINGLE MEMBER S.A. ("CENTAURO"). Helbidea: 396, Mesogeion Avenue, 15341, Agia Paraskevi, Attica, Grezia. Helbide elektronikoa: [dpo@centauro.net](mailto:dpo@centauro.net) **I. Datuen tratamenduaren helburu nagusiak:** Kontratu-harremana exekutatzearekin lotuta: Bezero gisa erregistratzeko eskaera prozesatzea, harreman komertziala eta dituzun beharrak kudeatzeko. Batzen gaituen kontratuzko edo aurrekontratuzko harremana kudeatzea, mantentzea eta betetzen dela ziurtatzea. Ibilgailua geokokatzea, agintariak horrela eskatuz gero. Lege-betebeharrei dagokienez: Edozein lege-araudi edo lege-arauei betetzeko, zure datuak agintari publikoei, arau-emailei edo gobernuko beste organo batzuei jakinaraz diezaiekegu. Centauro-ren interes legitimoan oinarrituta: Centauro-ren ekintza komertzialak, edozein bitartekoren bidez, kontratatu dituzun produktuen eta/edo zerbitzuen antzekoak eskaintzeko. Bezeroaren gogobetetze-inkestak eta bere beharren analisiak egitea, gure eskaintza bere profilera egokitzeko. Ahotsa eta/edo irudia grabatzea, gure zerbitzuaren kalitatea mantentzeko, eta beharrezkoa balitz, erreklamazioak eta beste prozedura batzuk kudeatzeko. Datuak aseguru-konpainiekin partekatzea errepideko laguntza emateko trafiko-istripuetan edo ezbeharretan. Zure datuak Centauro eta bere taldeko enpresei (Grupo Mutua Madrileña) jakinaraztea, bereziki hauei: MUTUA

MADRILEÑA AUTOMOVILISTA, S.S.P.F.; AUTOCLUB MUTUA MADRILEÑA, S.L.U.; MUTUAMAD MOBILITY, S.L.U.; SILDOSCAN SPAIN, S.L.; CENTAURO RENT A CAR, S.L.U.; NORDIC BUS, S.L.U.; CENTAURO RENT A CAR ITALY, S.r.L.; CENTAURO RENT A CAR, L.D.A.; NORDICWHEELS, L.D.A.; CENTAURO RENT A CAR GREECE, SINGLE MEMBER S.A. eta beste batzuei, bezeroak eskatutako gidaririk gabeko ibilgailuaren alokairu-zerbitzuak in situ eskaintzeko xedez, baita prozesu administratiboak eta informatikoak zentralizatzeko ere. Centauro-ren instalazioetan ibilgailua geolokalizatzeko, baita lapurtu edo bidegabe eskuratuz gero ere. Emandako onespeneraren arabera: zure beharrak aztertzeko gure iturriak edo kanpokoak aintzat hartuta, baita gure publizitate-bazkideak ere, publizitate interesgarria eta segmentatua erakusteko zure hobespenak kontuan hartuta. Zure nortasuna eta dokumentazioa egiaztatzea aurpegi bidezko ezagutzaren bidez. Ibilgailua geolokalizatzeko erabiltzaileak eskatutako laguntza emateko. Gidatze-datuak ateratzeko, ondoren aztertzeko. **II. Datuen hartzaileak:** Agintari publikoak, arautzaileak, gobernuko eta eskualdeko agintariak. Aseguru-konpainiak errepideko laguntza emateko trafiko-istripu edo ezbeharretan, Centauro taldeko enpresak zerbitzuak ongi emateko eta publizitate-xedeetarako, edota Centauro-rekin lankidetzan aritzen diren hirugarren enpresak. **III. Datuak babesteko eskubideak:** datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezabatze, mugatzeko edota tratatzeari uko egiteko eskubideak gauza ditzakezu, baita datuak eramateko eta erabaki automatizatuak egiteko erabiltzeari uko egiteko eskubideak ere, “Informazio osagarria” atalean zehazten den moduan. **IV. Informazio osagarria:** Bezeroen Pribatutasun-politikaren informazio osagarri xehatua ezagutu nahi izanez gero, joan gure web-orrira: <https://www.centauro.net>. Adierazi dugun moduan, Centauro-k eskaintzen dituen produktuen eta zerbitzuen eskaintzarik onenen berri eta zure interesetara hoberen egokitzen direnen emateko, zure onespenera behar dugu: Onartzen dut Centauro-k nire kontsumo-ohituren profil bat egitea barneko eta kanpoko datuak erabiliz, baita nire datuak bere publizitate-bazkideei ematea ere, nire beharretara egokitzen diren produktuei edo zerbitzuei buruzko eskaintza bereziak eskaintzeko xedearekin. □ Bai